

## BESTELAKO XEDAPENAK

### KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 4610

*222/2017 DEKRETUA, irailaren 19koa, Zadorra ibairen arroko zubiak monumentu-multzo kategoriarekin Kultura Ondasun Kalifikatu deklaratzeko dena.*

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 eta Autonomia Estatutuko 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondareari dagokionez. Bere gain hartutako eskumena gauzatu, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-intereseko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituen.

Eskumen horiek baliatuta, Zadorra ibairen arroko zubiak kalifikatzeko espedientea tramitatzen da, historia eta kultura aldetik duen interesa ikusita.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2015eko urriaren 5eko Ebazpenaren bidez (urriaren 20ko EHAA, 199. zk.), hasiera eman zitzaion Zadorra ibaiaren arroko zubiak monumentu multzoaren kategoriarekin Kultura Ondasun Kalifikatu deklaratzeko espedienteari.

Jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko izapidea ireki ondoren, lau alegazio aurkeztu ziren: bat, Trespondeko Administrazio Batzarrarena, beste bat, Iruña Okako Udalarena, eta hirugarren bat, Aguraingo Udalarena. Halaber, aintzat hartzen den laugarren alegazio bat jasotzen da, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Sailarena.

Trespondeko Administrazio Batzarraren alegazioa Iruña Okan kokatutako Iruña-Trespondeko zubia izeneko elementuari buruzkoa da. Iruña Okako Udalaren alegazioa, Iruña-Trespondeko zubia elementuari dagokionez, bat dator Trespondeko Administrazio Batzarrak azaldutakoarekin, eta, halaber, Billodako zubia izeneko elementuari ere badagokio. Aguraingo Udalak aurkeztutako alegazioa, berriz, bere udal-mugar-tean kokatutako Zamalburu zubia izeneko elementuari buruzkoa da.

Espedientean dauden txostenak kontuan hartuta, zati batean onartzen dira alegazio horiek. Horregatik aldatu zen Iruña-Trespondeko zubiari eragiten dion mugaketa. Horrela, mugaketa bat ezarri zen, zeinak zubirako bidean Trespondeko herrigunera sartzen den «La Calzada» kaleko 15 metro hartzen baitzituen. Halaber, Zamalburu zubia izena Zumalburu zubiak ordeztu zuen.

Arabako Foru Aldundiak alegazioak aurkeztu zituen proposatutako mugaketari buruz. Bestalde, babes-araubidea aldatzeko eskatu zuen, bai eta espedientea hasteko ebazpenean sartzen ziren Lacorzanilla, Zubibarri eta Ullibarri izeneko zubiak kentzea ere.

Zerbitzu teknikoek aurkeztu diren alegazioak aztertu ondoren, horietako batzuk zati batean onartu ziren. Honek funtsezko aldaketak ekarri zituen bai babestutako elementuen mugaketan, bai deskribapenean, baita babes-araubidean ere, aurretik argitaratu zenarekiko. Horregatik, espedientea hasi zen berriz, jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko dagokion izapidea irekitzeko.

Honela, 2016ko azaroaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak (214. zk.) jasotzen du 2016ko urriaren 4ko Ebazpena, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, zeinaren bidez jarduketak hasierako fase berri batera atzera eramaten baitira eta aldi berri bat irekitzen baita Zadorra ibaiaren Arroko Zubiak, Monumentu-multzoaren kategoriarekin, Kultur Ondasun Kalifikatu deklaratzeko espedientea jendaurrean jartzeko eta esandako espedientean interesa dutenei entzunaldia emateko.

2017ko irailaren 26a, asteartea

Jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko izapidea irekin ondoren, bi alegazio aurkeztu ziren: bata, Uraren Euskal Agentzia-Urarena, eta beste bat, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Saileko Errepide Zerbitzuarena.

Uraren Euskal Agentzia-Uraren alegazioa honi buruzkoa da: babes araubidean VI. kapituluaren I. atalak –Uholde-arriskua duten zubietan esku hartzeko araubidea– jasan dituen aldaketak, lehendabiziko ebazpenean jasotzen zenarekiko. Alegazio hau ez da onartzen, aldaketa horiek beharrezkoak baitira artikulua behar den bezala ulertzeko eta espedientean babestutako kultura intereseko ondasunak defendatu eta balioan jartzeko.

Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Saileko Errepide Zerbitzuaren alegazioa hauei buruzkoa da: Lafuenteko zubia eta Audikanako zubia I izeneko elementuen mugaketa eta VI. kapituluaren –Segurtasun, irisgarritasun edo osasungarritasun arloko araudietara egokitzeko beharra duten zubietan esku hartzeko araubidea–. Zati batean onartzen dira alegazioak eta, horregatik, babes-araubideko 24.2 eta 26.3 artikulua aldatzen dira eta 24.4 eta 26.6 artikulua gehitzen dira.

Ondorioz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 11.1 eta 12. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek egindako aldeko txostena aztertu ondoren, eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren proposamenez eta Gobernu Kontseiluak 2017ko irailaren 19ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Zadorra ibaiaren arroko zubiak kultura ondasun kalifikatu deklaratzeko, monumentu-multzo kategoriarekin.
2. artikulua.– Ondasunaren mugaketa dekretu honen I. eranskinean ezarritakoa izango da, bertan adierazitako arazoak oinarri dituela.
3. artikulua.– Sailkatutako ondasunaren deskribapena egitea, kultur ondarearen alorrean indarrean dauden legeek diotenaren arabera, dekretu honen II. eranskinean adierazitako eran.
4. artikulua.– Dekretu honen III. eranskinean agertzen den babes-araubidea onartzea.

#### LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Euskal Kultura Ondarearen Zentroari atxikitako Sailkatutako Kultura Ondasunen Erregistroan inskribatuko ditu Zadorra ibaiaren arroko zubiak.

#### BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak dekretu honen berri emango du Jabetza Erregistroan, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta, horrekin batera, honako erakunde hauei jakinarazi: Agurain, Alegria-Dulantzi, Armiñón, Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Burgelu, Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Legutio, Erribera Beitia, Donemiliaga, Vitoria-Gasteiz eta Zigoitiko Udalei, Uraren Euskal Agentziari, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eta Ingurumen eta Hirigintza Sailari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

2017ko irailaren 26a, asteartea

## HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eskaera egingo dio Agurain, Alegria-Dulantzi, Armiñón, Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Burgelu, Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Legutio, Erribera Beitia, Donemiliaga, Vitoria-Gasteiz eta Zigoitiko udalei udal hirigintza-araudia egokitu dezaten multzo horren babes-araudiak ezartzen dituen betebeharrak, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12.2 artikulua hala xedatzen duelako.

## LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Argitara dadila dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ALHAOn, jende guztiak horren berri izan dezan.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Udal planeamendua dekretu honetan ezarritako babes-araubideari egokitzen zaion arte eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren oniritzia izan arte, monumentu-multzoaren mugaketak hartzen duen eremuan egin beharreko esku-hartzeek alde aurretik Arabako Foru Aldundiko organo eskudunen baimena beharko dute, eta baimen horren ondotik eskuratu behar da udal lizentzia, halaxe xedatzen du-eta Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 29.1 artikulua.

## AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Dekretu honen aurka interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko irailaren 19an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

## IRAILAREN 19KO 222/2017 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

## DESKRIBAPENA

Zadorra ibaia Arabako Lurralde Historikoko emaritsuena da. Guztira, 66 kilometro inguru ditu; Munain herritik gertu sortzen da, Entzia eta Iturrieta mendilerroen iparraldean. Arabako Lautadako behealdeko lurraldeak zeharkatzen ditu, ekialdetik mendebaldera, 17 kilometro inguru egin ostean, Ullibarri Ganboako urtegiara heltzean, garai bateko bidea galtzen du, 49. kilometroan, gero berreskuratzeko, norabidea hego-mendebaldera aldatuta, urtegiari eusteko presa igaro ondoren, 44. kilometroan, eta Gasteiz inguratzen du, iparraldeko ertzari jarraituz. La Puebla de Arganzongo maskorrek zeharkatu eta Armiñon atzean utzi ondoren, Ebro ibaian isurtzen ditu urak, Lacorzanilla inguruan. Zadorra ibaiak bi ibai-ertzetatik hartzen ditu askotariko izaera eta ezaugarriak dituzten ur-lasterrak. Ugariagoak eta handiagoak dira eskuinaldetik Zadorrara iristen diren ibaiak. Besteak beste, uren isurketaren ordenari jarraituz, Barrundia, Santa Engrazia, Zubialde-Zalla eta Oka ibaiak biltzen zaizkio eskuinaldetik. Ezkerraldean, berriz, bigarren mailako ibaiak daude: Dulantzi ibaia, Ihuda ibaia, eta Gasteizko Mendietatik urak bildu eta Zadorrara zuzenean eramaten dituzten errekek.

Ullibarri Ganboako urtegia XX. mendearen erdialdean egin zuten, eta, horren ondorioz, Arabako Lautadako lurraldeen zati bat eta hainbat herri urpean geratu ziren. Aldi berean, Zadorraren eta beste ur-laster eta erreka batzuen ibitik igarotzen ziren bidexken sareko zenbait zubi ere ezkutuan geratu ziren.

Euskal Herriko auzo, herri eta hirien zerrenda luzea eta Lurralde honetako erreka eta ibaien multzo oparoa uztartzen dira, elkarrekin komunikatu nahian. Maila desberdinetako bide-sare korapilatsua egina dute, eta zubiak funtsezkoak dira hainbat jardueratarako: giza harremanak, merkataritza-trukea, erromesaldiak, produkzio-instalazioei zerbitzuak ematea, eta abar.

Zubi horien oinarrian dagoen kultura materialari dagokionez, Zadorra ibaiaren arroari lotutako zubiak fabrikazko arkuaren modalitatekoak dira; hau da, egitura horiek ia lan guztia konpresio-efortzuz egiten dute. Horrenbestez, harria, adreilua eta masa-hormigoia baino ez dute erabiltzen. Zubi horiek, egitura funtzionalak izateaz gainera, garai historiko bateko kultura eta artea adierazten dute, eta, aldi berean, proiektatu eta eraiki zituzten garaian zientziak eta teknologiak egin zuten aurrerabidearen adierazle dira.

Fabrikazko arkuz egindako zubiak oso ohikoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko herrien arteko harremanak eta komunikazioa bideratzeko sistema konplexu eta zabalean. Halaber, urrutiko erkidego eta herrialdeetako herri eta hiriekin komunikatzeko sare handiaren osaeran parte hartzen dute zubi horiek. Jada erabiltzen ez den zubi mota da; dagokigun lurralde-esparruan XX. mendearen erdialdean izan zuen gainbehera.

Euskal Herrian fabrikazko arkuz egindako zubien kontserbazio-egoera eta maila aldatu egin da, garai historikoen arabera.

Gizakien historian, oso antzinatek egin dira zubiak. Jarduera horrek ez du etenik izan, eta gaur egun ere egiten dira. Gizakiek, hasieran inguruko lurraldeetara eta gero urrunagoko tokietara joaten hasi zirenetik, jakin badakite abegi txarreko lurralde batean joan-etorriak egiteko ezinbestekoa dela ibaiak igarotzeko tresnak edo eraikinak egitea; esate baterako, zubiak.

Zubi horiek, lehen begiratu batean, lurralde jakin bateko kartografian sakabanatuta daudela dirudite; ausaz banatuta, alegia. Baina, esparruan parte hartzen duten geruzei erreparatzen badiegu (ibaiak, herriak, bideak, eta produkzio-eremu jakin batzuk) zentzua hartzen dute.

Zubi horietako askok kultura material komun bat osatzen dute, eta gure ondarea aberasten dute, historiaren, estetikaren, paisaiaren eta ingeniartzaren aldetik. Hala da fabrikazko arkuz egindako zubien kasuan, eta Zadorraren arroan halako hainbat eraikuntza dugu.

Horrelako eraikinek honako elementu hauek dituzte Zadorran:

– Ganga. Fabrikazko arkuz egindako zubi baten elementu erresistente nagusia ganga da. Erresistentzia-funtzioaren barruan, bi ezaugarri ditu gangak: formaren bidez lan egiten du, eta trakzio-tentsiorik jasateko gai ez diren materialez egina dago.

– Betegarria. Kasu gehienetan, fabrika-gangaren, tinpanoen, horma-bularren eta errodadura-azalaren artean dagoen guztia biltzen du.

– Tinpanoak. Alboetako elementu bertikalak dira tinpanoak, eta gangak dira haien euskarri.

– Pilak. Fabrikazko arku baten barruan, pilen eginkizuna da gangek transmititutako karga zimendueta raino eramatea.

– Zimenduak. Karga eta tentsio guztiei eutsi eta horiek guztiak lurzoruan deskargatzen dituzten elementuak dira zimenduak.

– Horma-bularra. Obraren muturretako atala da horma-bularra, eta ibai-ertzetan ainguratuta dago.

– Zubi-brankak eta ezproiak. Pilak bi fronteetan (uretan gora eta uretan behera) defendatzen dituzten babes hidrodinamikoak dira.

– Laguntza-hormak. Horma-bularren ondoren galtzadari jarraipena emanez egin dituzten hormak dira.

– Hegalak, desbideratze-hormak eta manguardiak. Horma-bularrak babestu eta urak zubiaren baotara eramateko ardura duten hormak dira.

– Galtzada. Errodadura-azala da.

– Petrilak. Bidea babesten duten karelak dira.

Orobat, espazioaren antolaketaren ikuspegitik, Zadorra ibaiaren zubiek honako eremu funtzional hauek izan ditzakete:

– Galtzada edo bidea: zamabereak, animaliek tiratutako ibilgailuak eta ibilgailu motordunak ibiltzeko gaituta dagoen espazioa.

– Espaloia: oinezkoen joan-etorrietarako gaituta dagoen espazioa.

– Bazterbidea: oinezkoak gurutzatzean baztertzeko, atsedean hartzeko, egonerako edo bistak ikusteko gaituta dagoen espazioa.

– Zabalguneak edo plaza txikiak: zubiaren sarreran edo irteeran ibilgailuak zain egoteko eta atsedean hartzeko gaituta dauden espazioak.

## IRAILAREN 19KO 222/2017 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

## MUGAKETA

Mugaketaren deskribapena.

Zubiaren ezaugarria da, oro har, ibai batekin topo egiten duen bideari jarraipena emateko gainditu behar den oztopoa zeharkatzeko tresna dela. Horrenbestez, ibai baten arroa funtsezko atala da lurralde-eremu jakin bateko zubien arteko loturari dagokionez. Dagokigun kasuan, Zadorra ibaiaren arroa da hari atxikitako zubien katalogo oparoa antolatzen duen eragilea, indarrean dagoen bide-sarearekin sinbiosi ezin hobea eginda. Zadorra ibaiaren arroa da, hain zuzen, kultura-unitate bat osatzen duten hainbat zubi biltzea eta Zadorra Ibaiaren Arroko Zubien Monumentu Multzoa eratzea justifikatzen duen elementu elkartzailea.

Zadorra Ibaiaren Arroko Zubien Monumentu Multzok 88 elementu ditu, guztira, eta babes-arau-bide honekin batera egin diren zerrendetan jasota daude, bakoitzaren inguruaren mugak zehaztuta, baita dagokion babes-esparrua ere.

Mugatutako esparruak, halaber, II. eranskin honetan dauden dokumentu grafikoetan ageri dira. Mugaketa horrek hartzen du, alde batetik, zubi bakoitzaren egitura osoa, osagai guztiak barnean hartuta; eta bestetik, haiei lotutako urbanizazioa, eta zubi bakoitzaren inguru hurbila.

Horrenbestez, Zadorra ibaiaren arroko zubi babestu bakoitzaren babes-eremua, oro har, muga hauen arabera definituta dago: bi lerro paralelo, zubien ildotik distantzia jakin batera, zubien bi alboetan marratuta; zirkunferentzia-zatiak, erdigunea zubiak ibai-ertzeekin elkartzen diren tokiaren erdian dutenak, berdeguneak, espazio libreak edo bidegurutzak daudenean; eta ibaiaren ibilguarekiko paraleloak diren mugak, zubia hirigintzaren eta ikuspegiaren aldetik integratzeko behar diren eremuak barne hartuta. Hala eta guztiz ere, mugak eta distantziak zehaztuko dira, zer zubi den kontuan hartuta, babes-mailaren eta zubi-zabaleraren arabera.

Proposatu den mugaketak barnean hartzen ditu Done Jakue Bidea Monumentu Multzorekiko elkarguneko eremuak (EHAA, 2012-01-27), eta eremu horretan Zadorra ibaiaren arroko elementu hauek daude: Luzuriagako zuba (Luzuriaga); Audikanako 1. zuba edo zubi zaharra, eta Audikanako 2. zuba edo errotako zuba (Audikana); Arkaiako 1. zuba eta Arkaiako 2. zuba (Arkaia); Ezkerekotxako zuba (Ezkerekotxa); Oreitiako zuba (Oreitia); Armiñongo zubi zaharra (Armiñon); eta Berantevillako zuba (Berantevilla).

Mugaketaren justifikazioa.

Definitutako mugaketaren barruan sartzten dira administratiboki Arabako Lurralde Historikoko 15 udalerrri hauei dagozkien elementuak: Alegria-Dulantzi, Armiñon, Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Berantevilla, Burgelu, Iruña Oka, Iruraitz-Gauna, Legutio, Erribera Beitia, Agurain, Donemiliaga, Vitoria-Gasteiz, Zigoitia eta Bernedo.

Zubiak sistema konplexuago batean integratuta dauden ondare-elementuak dira; alegia, lurralde-eremu jakin bat zeharkatzen duen bide-sareren batean integratuta daude. Halaber, lurralde-eremu bakoitzean hainbat mailatako sareak daude.

Bide-azpiegitura horien aldaerak oso ugariak dira: batzuetan, eraikuntza egindako tokiak dituen baldintza fisikoen ondorioz sortuak; eta, beste batzuetan, eraikitzean aplikatutako ezagutza eta soluzio tekniko komunaren ondorio direnak.

Alabaina, gizakiek ibai bat igarotzeko egindako obra da zubia, eta, horrenbestez, ezaugarri horrek bateratzen ditu multzo bereko zenbait elementu.

Horregatik, Zadorra Ibaiaren Arroko Zubien Monumentu Multzoaren kultura-unitatea ez da osatu elementuen justaposizio hutsez; izan ere, ibaiaren arteko erlazioak ere barnean hartzen ditu, ibaia lokarri dela.




Zadorra Ibaiaren Arroko Zubien Monumentu Multzoko egitura horiek babestea ulertu behar da ibai-ibilguari lotutako unitate baten barruan, ibai-ibilgu hori kultura material homoginoa eta konnotazio funtzional, sozial, historiko, kultural eta politiko antzekoak dituen eremutzat hartuta. Toki eta egoera bakoitzean ibai-ibilgu hori zeharkatzeko egiten diren eraikuntzak askotarikoak eta konplexuak dira, zer-nolako inguru geografikotan eraiki, zer material erabili, eta zer trebetasun tekniko baliatu kontuan hartuta. Zadorraren ibaiak dira, multzo gisa, tamaina askotakoak dira, epe luze batean eginak, baina homoginoak, antzeko tresna teknologikoak erabilia egin ziren aldetik.





Proposatutako mugaketak erantzuten dio monumentu-multzoaren balioak (egitura, eraikuntza, espazio-antolaketa, konposizioa, forma eta balio historikoa) eta zubien arteko lotura babesteko premiei, garai bateko bidegintzako teknikaren adierazpen diren aldetik. Aldi berean, katalogatutako ondasunari beharrezko balioa erantsi eta babesteko, aipatu diren inguruko lur-sailek okupatutako zubien ondoko espazioak babestu beharra dago, ingeniari-obra paregabe horiek ikuspegiari nahiz hirigintzari erreparatuta eta funtzionalki integra daitezten.





Horretarako, zubi bakoitza babesteko eremuak eransteaz gainera, aintzat hartu da eremu horiek osatzen duten sistema, baita sistema horrek ibai-ibilguaren egitura-ardatzarekin duen lotura ere, lurraldearen eta komunikazioaren ustiapen-unitatea osatzen baitute, kultura material bereziaren ondorioz.






































2017ko irailaren 26a, astearta























































































## IRAILAREN 19KO 222/2017 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

## BABES-ARAUBIDEA

## I. KAPITULUA

## BABES-ARAUBIDEAREN IZAERA

## 1. artikulua.– Babes-erregimenaren helburua.

Babes-araubide hau ematen da Zadorra ibaiaren arroko zubiak kultura-ondasun kalifikatu deklaratzeko, deklarazio horren zati gisa, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 2.2.b artikuluan xedatuta dagoenari jarraituz. Araubide hau bete beharko da kalifikazioaren eraginpeko ondasunak kontserbatzeko, eta hirigintza-plangintzarako tresnek ere xedapen hauen arabera izan beharko dute.

## 2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Hurrengo artikuluetan zehaztuko den babes-araubidea aplikatu beharko zaie Zadorra Ibairen Arroko Zubien Monumentu Multzoaren mugaketan sartuta dauden elementu eta espazio guzti-guztiei.

## 3. artikulua.– Babesten den xedaren definizioa.

Monumentu-multzotzat hartzen da kultura-unitate bat osatzen duten ondasun higigarri eta higiezin multzoa, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legeko 2.2.b artikuluan jasotako definizioari jarraituz.

Ondasunak hartzen duen espazioa poligono-lerro itxien bidez adierazita identifikatu da, II. eranskinean (Mugaketa) deskribatu den bezala, UTM koordenatuak edo espedientean jasota dagoen kartografian ageri diren zenbait elementu edo zalantzarik gabeko erreferentzia-puntu aintzat hartzen dituzten erpinetan oinarrituta. Horrela mugatutako espazioak izaera lineal etengabea du babes-araubide honetan.

## II. KAPITULUA

## BABES-ARAUBIDE OROKORRA

## 4. artikulua.– Edukia.

Babes-araubide honek ezartzen ditu eranskin honen 2. artikuluan definitutako aplikazio-esparruan eraikitako ondarean edozein esku-hartzek bete behar dituen baldintza orokorrak, bai babes-araubide honek garatuko duen hirigintza-plangintzari dagokionez, bai etorkizunean egin daitezkeen berrikuspenei begira.

## 5. artikulua.– Aplikatu beharreko araudi orokorra.

1.– Babes-araubide honetako babes-mailetan sartutako zubi eta eraikuntza guztiek, baimen, erabilera, jarduera, defentsa, zigor, arau-hauste eta gainerakoei dagokienez, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean aurreikusitakoa bete beharko dute.

2.– Urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuak babesten dituen elementuei (Euskal Autonomia Erki-  
degotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzo kategoriako Kultur Ondasun

Kalifikatu izendatzekoa) (EHAA: 2012-01-27) araudi honetan ezarritako babes-araubidea aplikatuko zaie, hura baino zehatzagoa delako.

3.– Babes-araubide honek babesten dituen ondasunen jabeek ondasun horiek kontserbatzeko, zaintzeko eta babesteko eginbeharrak bete beharko dituzte, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legeak 20. eta 25. artikuluan ezarritako xedapenei jarraituz.

4.– Babes-araubide honetako babes bereziko, ertaineko, edo oinarrizko babeseko zerrendan dauden ondasunak ezingo dira eraitsi, ez osorik, ezta zati batean ere, aldez aurretik aurri deklaratu ez badira, eta dagokion Foru Aldundiak ez badu berariazko baimena eman, betiere Eusko Jaurlaritzak kultura-ondasun sailkatu hori eraginpetik kanpo uzteko baimena eman ostean, bi xedapen hauei jarraituz: uztailaren 3ko 7/1990 Legea, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa (36. artikulua), eta azaroaren 10eko 306/1998 Dekretua, kalifikatutako eta zerrendatutako kultura-ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari buruzkoa, eta eraikuntza horiek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharreko buruzkoa.

5.– Babes-erregimen honen aplikazioak aukera emango balu eremuko zubien ezaugarri tipologikoak eta formalak aldatuko dituzten esku-hartzeak egiteko, erabilerak aldatzeko eta/edo jarduerak egiteko, bete beharko da dagokion Foru Aldundiaren organo eskudunak berariaz xedatuko duena, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 29. artikuluari jarraituz.

6.– Babes-araubide honetan sartutako ondasunei aplikatzeko hirigintza-plangintzak izan beharko du bertan jasotako xedapenen arabera, eta Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 28.1 artikulua aipatzen duen txostena egin beharko da. Txosten horrek zehaztuko du zer harmonizazio-maila eskatuko zaion ondasun horietan egiteko edozein esku-hartzeri.

7.– Babes-araubide hau garatzeko hirigintza-tresnak onartu arte, zorrotz bete beharko da Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 28.2 artikulua, monumentu-multzo bat osatzen duten ondasunetan egin daitezkeen jarduerak mugatzen dituen.

6. artikulua.– Sailkapena.

1.– Zadorra Ibaiaren Arroko Zubien Monumentu Multzoaren mugetan sartutako ondarea sailkatuko da kategoria edo babes-maila hauetan ezarritakoaren arabera:

- Babes berezia.
- Babes ertaina.
- Oinarrizko babesa.

2.– Babes-maila bakoitzari dagokionez, elementu babestuen zerrenda egin da, elementu horietan baimentzen diren jarduerak edo esku-hartzeak zehaztuta, bai babes berezia duten elementuetan (elementu babestuen berariazko zerrenda eta guzti), bai babes ertaina eta oinarrizko babesa duten elementuetan (babestuko diren elementuen eta baimenduko diren esku-hartzeen zerrendak jasota, balioen arabera: egitura, eraikuntza, espazio-antolaketa, konposizioa, forma, eta balio historikoa).

7. artikulua.– Aparteko garrantzia duten elementuak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 12.1.e artikulua ezarritakoa betetzeko, garrantzi bereziko elementutzat joko dira babes bereziko elementuen zerrendan jasotako higiezin guztiak.



#### 8. artikulua.– Elementu diskordanteak.

1.– Elementu diskordantetzat hartuko dira eraikuntza edo elementu babestu baten zati edo arlo jakin bat osatzen duten eta balioespen negatiboa dutelako desegokiak diren elementuak. Haietan baimendutako jardueren edo esku-hartzeen xedea izango da elementu horiek desagerraraztea; hartara, osatzen duten ondasun edo elementu babestuaren kultura-balioak zainduko dira.

2.– Edozein babes-mailatan barne hartutako eraikuntzetako elementu diskordanteen gaineko esku-hartzeek elementu horiek kentzea izango dute helburu, eta aplikatu behar den hirigintza-lege-diak onartzen dituen esku-hartzeak baino ez dira baimenduko, higiezinak kontserbatu beharrari dagokionez.

3.– Elementu diskordantetzat hartuko dira babes-araubide honi erantsitako 4. zerrendan ageri diren elementuak.

#### 9. artikulua.– Babesik gabeko elementuak.

1.– Babesik gabeko elementutzat hartuko dira babesaren xede izateko balio garrantzitsurik ez duten elementuak, haien egitura, eraikuntza, espazio-antolaketa, konposizioa, forma eta balizko balio historikoa kontuan hartuta.

2.– Elementu horietan, edozein motatako esku-hartzeak baimenduko dira, baita ordezkatzera edo eraistea ere, horrek kalterik eragiten ez badie elementu babestuei.

3.– Babesik gabeko elementutzat hartuko dira babes-araubide honetan jasota dauden babes bereziko, ertaineko, edo oinarrizko babeseko elementuen zerrendetan ageri ez diren guztiak. Halaber, babes-araubide honen bidez ezarritako balioespen-irizpideak aplikatuta, zubi babestuen esparruan dauden eraikuntza-elementuak ez badaude babestu beharreko elementuen artean, nahitaez zaindu beharrekoak ez direla joko da; beraz, babesik gabeko elementutzat hartuko dira.

#### 10. artikulua.– Esku hartzeko proiektuak.

Babes bereziko, ertaineko edo oinarrizko babeseko mailan sartutako zubietan edozein esku-hartze egin aurretik, dagokion esku-hartze proiektua egin beharko da, eta honako eduki hauek jaso beharko ditu:

a) Zubiaren egoerari buruzko azterketa analitikoa; alegia, zubiaren deskripzioa eta kontserbazio-egoerari buruzko azterketa, diagnosi-txostena, ondorioak eta esku-hartzeko oinarrizko gomendioak biltzen dituenak.

Azterketa analitikoaren deskripzioak dokumentazio grafikoa jaso beharko du (1/50 eskalan, gutxienez, oinak, altxaerak eta ebaketak adierazteko; 1/20 eskalan, gutxienez, arkitektura-xehetasunak adierazteko), baita argazki-dokumentazio osoa ere, eta altxaera zehatza, dimentsionatuta eta kotatuta. Dokumentazio horrekin batera azalpen-memoria aurkeztuko da, eta, baldin badago, eraikuntzari buruzko bibliografia.

Nolanahi ere, kontserbazio-egoerari buruzko azterketan –azterketa analitikoaren eranskin edo separata gisa aurkez daiteke– jasoko dira, besteak beste, zubiaren egonkortasunean eragiten duten edo eragin dezaketen patologien azterketa eta elementu horiek zaintzeko aurreikusi diren neurriak.

b) Erantsi beharko zaio, halaber, historia- eta arkitektura-azterketa bat, honako eduki hauek izango dituenak: eraikuntza-eboluzioari buruzko ondorioak, faseak, datazioak eta bibliografia edo zerikusia duten agiriak, dokumentuak hustetik lortuak, testigantzen bilketa, argitalpenetako

aipamenak, altxaeren eta zorupearen azterketa estratigrafikoak, eta beste ikerlan funtsatu batzuk. Diagnostikoa, ondorioak eta jarduteko oinarritzko gomendioak biltzen dituen txosten bat ere erantsi beharko zaio.

Historia- eta arkitektura-azterketako deskripzioak dokumentazio grafikoa jaso beharko du, 1/50 eskalan, gutxienez, oinak, altxaerak eta ebaketak adierazteko; 1/20 eskalan, gutxienez, arkitektura-xehetasunak adierazteko (beharrezkoak izanez gero); baita argazki-dokumentazio osoa eta plano historikoak ere (baldin badaude). Dokumentazio horrekin batera azalpen-memoria aurkeztuko da, eta, baldin badago, eraikinari buruzko bibliografia.

Nolanahi ere, kontserbazio-egoerari buruzko azterketa horretan –azterketa analitikoaren eranskin edo separata gisa aurkez daiteke– jasoko dira, besteak beste, eraikuntza-fase dokumentatuen azterketa eta datazio justifikatua, baita elementu horiek zaintzeko aurrekusi diren neurriak ere.

c) Esku hartzeko proiektuari dokumentazio grafikoa erantsiko zaio. Dokumentazio grafiko horretan, egin nahi diren esku-hartzeak, erabiliko diren materialak, lanak egikaritzeko faseak eta bukaerako egoera adieraziko dira. Hori guztia eskala egokian irudikatuko da, aurreko atalean eskatutakoan, gutxienez.

d) Esku-hartzearen helburuak, egingo diren lanak eta erabiliko diren teknikak adierazten dituen dokumentazio idatzia ere erantsiko zaio. Dokumentu horiek zer material erabiliko diren adieraziko dute. Halaber, aztertuko dute zer egonkortasun duen, eta zer elkarreragin duen gainerako osagarriekin.

e) Eraikuntzaren iraupena ziurtatzeko eta behar bezala zaintzeko zein teknika eta baliabide behar diren adieraziko du proiektuak.

f) Esku-hartzearen aurrekontua ere erantsiko zaio, kontuan hartuta esku-hartze horretarako baliatu behar direla babes-araubide honek ezarritako aginduen arabera obrak egiteko behar diren teknika eta bitartekoak.

### III. KAPITULUA

#### BABES BEREZIA

##### 1. ATALA

#### BABES BEREZIAREN XEDEA

##### 11. artikulua.– Babes berezia definitzea.

1.– Babes berezia duten elementutzat hartzen dira honako ezaugarri hauek dituztenak: berriazko izaera, ohiz kanpoko balioak (egitura, eraikuntza, espazio-antolaketa, konposizioa, forma eta balio historikoa) eta jatorritzko arkitektura-ezaugarriak berreskuratzeko aukera ematen duen kontserbazio-egoera. Baldintza horiek betetzen dituzten elementuei babes osoa eman behar zaie; alegia, eraikuntza-unitateri eutsi beharko zaio, baita haren atal bakoitzari ere. Horren haritik, funtsezkoa da fabriketan gordeta dagoen informazio historikoa ez galtzea.

2.– Multzon honetan sartzten dira zubiaren oinarritzko ereduaren arabera eratu diren eraikuntzak, ageriko fabriketan denboraren joanak utzitako aztarnak bistan dituztenak, baita, informazio historikoa gordetzeaz gainera, formaren edo tipologiaren aldetik garrantzi berezia duten eraikuntzak edo elementu adierazgarriak kontserbatzen dituztenak ere.

12. artikulua.– Babes berezia emateko mailan sartuta dauden elementuak.

1.– Monumentu-multzo gisa mugatutako esparruan, babes berezia duen mailan daude, babes-araubide honen 1. zerrendan adierazitakoari jarraituz, zerrenda horretan grafikoki mugatutako babes-eremuan dauden eraikuntza-elementu hauek:

a) Egitura:

1) Horma-bularrak, pilak, zubi-brankak eta harlangaitz-horma ilaratuz egindako ezproiak, harlanduxkekin edo harlanduekin nahastuta.

2) Gangak, honako buru hauek dituztenak:

– Askotariko zabalera eta ertzak dituzten pieza edo harlandu luzeak, arkugainera koskaduna, harribil arinez edo mortero-zerrenda zakarrez egindako junturak.

– Antzeko zabalera eta ertzak dituzten harlandu luzeak, edo tamaina ertaineko falka-formako dobelak; harribilik gabe eta junturetan mortero-geruza fina emanda; lerro jarraituko arkugainera.

– Falka-formako dobelak ertain eta handiak, eta kare-esne oso finez edo hezurrez egindako juntura; arkugainera uniformeak.

3) Plementeria erresistentea:

– Harlangaitz-horma ilaratuz moldatua, harribil gutxi erabilita, junturetan morteroarekin edo gabe.

– Harlanduxkaz edo harlanduz moldatua, ilarak gehiago direla dobelak baino, juntura finak.

– Erabat eskuairatutako harlanduz moldatua, antzeko neurria duten ilaratan.

4) Tinpanoak:

– Harlangaitz-horma ilaratuak eta harlanduxkak nahastuta moldatuak, buruekin erregularitasunez uztartuta.

– Harlanduxkak eta harlanduak nahastuta moldatuak, buruekin arretaz uztartuta.

– Inposta jarraituz errematea eginda, horma-ataletan edo hegaletan, harburuen bidez, edo beste sistemaren bat baliatuta.

b) Petrilak, hegalak edo bideratze-hormak, laguntza-hormak eta manguardiak, honela eginak:

1) Harlangaitz-horma ilaratuz moldatua, material bereko erremateak edo gailurrak eginda, edo lauzak horma-ataletan.

2) Harlanduxkaz egina, arretaz landutako tamaina handiko harlauzez erremateak edo gailurrak eginda.

3) Harlanduz egina, arretaz landutako tamaina handiko harlauzez erremateak edo gailurrak eginda.

4) Ortostatoak, erremateak horizontalean emanda, ganbilean, bi isurialdetara. Baliteke piezak askotariko mihiztadura hauen bitartez elkartuta agertzea: arteka eta mihia, miru-buztana, burdinazko grapak eta beruna.

c) Harrizko zimendu tradizionalak:

1) Azaleko zimenduak arroka- edo harrizko hondoaren gainean, harlangaitz-horma ilaratuz, harlanduxkaz edo harlanduz moldatutako zokalo bat eginda, inposta molduradunaz edo moldurarik gabeaz errematatuta, zimbria jartzeko irtengune eta guzti.

2) Egurrezko pilote sakonez jarritako zimenduak, egurrezko zepak eta betegarria; piloteak eta zutoin-oholen barrutia; kare-hormigoiz betetako kaxa.

d) Elementu bereziak:

1) Harrizko arku dekoratuak, molduradunak. Bereziki, arku zorrotzak, karpanelak edo beheratuak.

2) Kontrahormak edo zubi-brankak, harlangaitz-horma ilaratuz egindako ezproiak, harlanduxkak, inposta molduradunaz edo txapelaz errematatutako harlanduak.

3) Inpostak, erlaitzak, txapelak, molduradunak edo irtengunea dutenak, harri landuz eginak.

4) Harri landutako inskripzioak eta behe-erliebeak.

e) Galtzada, zubiaren estalki gisa:

1) Galtzada zaharberritua, harri naturalezko lauzaz, uharriz, eta galtzada-harriz egindako zoladura duena, hondarrezko oinarri baten gainean.

2) Uharriz edo errekarritz egindako jatorrizko zoladura duen galtzada, hondarrezko oinarri baten gainean, enkatxoa edo harzola duena, galtzada-harrizkoa.

3) Uharriz edo errekarritz egindako jatorrizko zoladura duen galtzada, hondarrezko oinarri baten gainean, erdian edo alboetan kordioa edo kordioak dituen, luzetarako edo zeharkako isurki edo hustubide eta guzti.

f) Galtzada edo bidea, zamabereen, animaliek tiratutako ibilgailuen eta ibilgailu motordunen joan-etorrietarako gaituta dagoen espazioa.

g) Oinezkoen joan-etorrietarako gaituta dauden espazioak: espaloiak.

h) Oinezkoak gurutzatzean baztertzeko, atsedean hartzeko, egonerako edo bistak ikusteko gaituta dauden espazioak: bazterbideak.

i) Ibilgailuak iristeko, sartzeko eta irteteko edo zain egoteko espazio komuna: plaza txikiak.

j) Forjaketa tradizionalaz egindako errementarritza-lanak balkoietan, kareletan, barandetan.

## 2. ATALA

### BABES BEREZIAREN ARAUBIDE XEHATUA

13. artikulua.– Babes berezia emateko mailan sartu diren elementuei buruzko agindu orokorrak.

1.– Babes berezia duten elementuak maila goreneko zaintzaren xede dira, eta haietan egingo diren zaharberritze-jarduerak eraikuntzen egitura eta ezaugarriak errespetatu beharko dituzte.

2.– Elementu horiei eragiten dien edozein lan edo esku-hartzetan ezingo da aldatu konfigurazio bolumetrikoa. Ohiz kanpoko kasua izango da zerbitzuak osatzeko edo irisgarritasuna zein komunikazioak bideratzeko ezinbestean erantsi beharreko eraikuntza berriko obrak. Eranskin

horiek koherentzia osoa izan behar dute lehendik dagoen zubiarekin, harekin integratu behar dute, konposizioari eta ikuspegiari dagokionez, ez dituzte zubiaren balioak andeatu behar, ezta hura begiratzea eragotzi, galarazi edo distortsionatu ere.

3.– Babes berezia duen ondare eraikiaren balioa azpimarratzeko esku-hartzeak erabat itzulgarriak izan beharko dute.

14. artikulua.– Babes berezia duten ondasunetan onartzen diren jarduerak.

1.– Elementu horietan onartuko dira eraikitze esku-hartzeak, haien helburua eraikuntzak konserbatzea eta haien balioa azpimarratzea izanez gero, eta itzulgarritasun-irizpide justifikatuen arabekoak baldin badira. Ondare-elementu eraiki batean egiten den esku-hartzea itzulgarritzat hartuko da baldin eta, etorkizunean ekarpen hori desegin edo desmuntatuz gero, iraganeko testigantzen materialtasunari lotutako funtsezko informazioa suntsitzea edo konponbiderik gabe galtzea ez badakar.

2.– Lehendik dauden eraikuntzen finkatzea dela-eta, itzulgarritasuna lortzeko egoki dokumentatu behar da eraiki dena eta suntsitu dena, puntualki edo birtualki berreraikitze aukera ere bideratzeko.

3.– Ekarpen berriak egiteko proposamenak –esate baterako, taula berriak, edo erantsita eraikitze bolumenak– baimenduko dira soil-soilik hasierako egituraren egonkortasuna eta osotasuna kaltetzen ez badute eta aldatzen ez badute. Obra berriaren eta lehendik zegoenaren arteko ukipen-azalaren tratamendua oso ondo zaindu beharko da, ekarpena kentzeak ez dezan inolaz ere eragin antzinako zatia suntsitzea. Beraz, horman sartzea, kendu ezin diren estalkiak jartzea, edo fabrika babestuak zulatzea saihestuko da, egungo morteroa eta antzinako obra laminen bidez berezita, eta lehendik dagoen eraikuntza ukitzen duten bolumenak eraikitze sistema arin, industrializatu eta desmuntagarriak erabiliko dira.

4.– Asentuari babes berezia ematea:

a) Indusketak eta lur-mugitzeak egiteko lizentzien eskaerek nahikoa dokumentatu beharko dute lursailaren hasierako egoera, haren profil topografikoak, lurzoru motak, eta elementu bereziak.

b) Ondoztatu behar diren zimendu eta euste-hormak ondo berezitu beharko dira haiek sendotzeko jarriko diren zapata, lauza edo horma berrietatik, xafla geotestil bikoitzaren bidez, baita kare hidrauliko natural puruz eta erreka-harea ez-azidoz egindako garbiketa-morteroaren bidez ere. Zimenduak eta euste-hormak ez dira zementu-hormigoiz gogortuko, jatorrizko fabrikari eutsita. Izatekotan, ondoztatu ahal izango dira, fabrika berria eta jatorrizkoa berezita, xafla geotestil bikoitza eta kare hidrauliko natural puruz egindako mortero-geruza bat baliatuta, eta, sendotzeko, kare hidrauliko natural puruz eta erreka-harea ez azidoz egindako juntura partzialak erabili ahal izango dira.

c) Ondoztatu behar diren zimendu eta euste-hormak ez dute inolaz ere sortuko lurpeko uren pilaketarik, ezta zubiaren fabrikek ukitzen dituzten lurzoruen maila freatikokoaren igoerarik ere.

d) Balioespen-fitxan mugatutako ingurune babestuaren hasierako urbanizazioa eta proposamenean jaso dena grafikoki zehaztuta adierazi beharko dira arkitektura-proiektuaren planoetan, dokumentazio hori behar duten esku-hartzeak izanez gero. Ingurune hurbilaren urbanizazioan ez dira jarriko zementu-hormigoizko lauza masiboak, lurzoruko hezetasuna kapsulatu eta kapilarren bidez hormetara bidaltzen dutenak. Aztertu beharko da antzinako horma eta zoladurak ukitzen dituzten lurren aireztapen egokia, eta ez dira inolaz ere irazgaiztuko izerdia botatzea eragozten duten xafla edo emultsioen bitartez.

e) Indusketek eta lur-mugimenduek oso kontuan hartu beharko dute eskuarki egitura-sistema isostatiko ez zurruneekin egiten dela lan, eta zimenduak sarritan jartzen direla lurzoru buztintsu ezegonkorretan. Horren ondorioz, eraginpeko zubiak monitorizatuko dira, eta zangak gehiegi lehortzea eragotziko da, oinarriak ez daitezen desegokiak izan.

f) Kanpoko esparru babestuen bolumenak, azalera eta kokalekuak, II. eranskineko dokumentazio grafikoan ageri den zubiaren planoan jasota daudenak, zabaldu ahal izango dira soilik honako helburu hauekin lotutako erabileretarako: irisgarritasuna eta zerbitzuak hobetzea, aisialdia, edo esparrua zeharkatzen duten bide historikoei buruzko ezagutza hedatzea. Halaber, ezingo dute inbaditu gainerako esparru funtzional babestuek hartzen duten eremua; erantsitako bolumenak ez ditu eragotzi behar hasierako bistak, egungo esparru publikoaren puntu guztietatik begiratuta; eta erantsitako eraikuntzak egokitu behar dira alboan edo hurbil dituzten lehengo eraikuntzen ezau-garrien arabera.

g) II. eranskinaren dokumentazio grafikoan zubi bakoitzarentzat mugatutako esparru babestuan ezingo da sortu ikuspegiarekin edo pertzepzioarekin lotutako kutsadurarik; alegia, ondasuna ikus-tea eragozten, galarazten edo distortsionatzen duten esku-hartze, erabilera edo ekintzak ez dira onartuko.

Eraikin multzoaren ikuspegia ezingo dute eragotzi honako elementu hauek:

- Eraikin berriak ondasun babestuarentzat mugatutako babes-esparruan.
- Aldi baterako eraikuntzak edo instalazioak, haien alturagatik, bolumenagatik edo distantziagatik pertzepzioa nahas dezaketenak.
- Energia hornitzeko, sortzeko eta kontsumitzeko behar diren instalazioak.
- Telekomunikazioetarako behar diren instalazioak.
- Idazkunak, seinaleak, hesiak eta kanpoko publizitatea jartzea.
- Hiri-altzariak jartzea, eguzki-oihalak, beilatokiak, kioskoak eta antzeko elementuak barnean hartuta.
- Hiri-hondakinak biltzeko elementuak jartzea.
- Beste edozein elementu edo jarduera, eraikina izan gabe ere, distortsioa edo eragin negatiboa sor badezake higiezin babestuen pertzepzioan, gozamenean, begiratzean edo osotasunean, eta babesaren xede diren balioak nolabait arriskuan jartzen baditu. Ez dira aintzat hartuko, atal honetan jasotako ondorioetarako, ingurumena zaintzea edo ibai-ibilguaren gaitasun hidraulikoa hobetzea helburu duten lehengoratze-jarduerak.

h) Ondasunaren mugen barruan, ezingo da publizitate komertziala jarri, eta edonolako kable, antena eta hodi nabarmenak ezingo dira kokatu babes berezia duten ondasun eraikietan.

i) Babes berezia duten ondasun higiezinak ezin dira kokalekutik bereizi. Ondasun horiek lekualdatzea ez da lehengoratze-ekintzat hartzen.

5.– Egiturari babes berezia ematea:

a) Egiturretan (horma-bularrak, pilak, zubi-brankak eta ezproiak, gangak eta buruak, plementeria erresistentea, tinpanoak) jardungo da soil-soilik bakoitzari dagokion sostengu-funtzioa betetzen ez duten elementu bakanak (harlanduak, harlanduxkak, harlangaitzak, dobelak eta abar) konpon-tzeko, kentzeko edo ordeztzeko. Galtzadaren azpiko betegarria edo beste elementu zurrungarri

batzuk ikuskatuko dira, haien gabeziak multzoa itxuragabetzea eragin ote duen aztertzeko. Hala izanez gero, lehengoratuko dira, dokumentuetan jasotako neurri eta kokapenen arabera edo pre-miak kontuan hartuta. Ezin da kareorezko horma masiboen egitura kapsulatu zementu-morteroz zarpiatuta eta aireztatu gabe, ezta materialari arnasa hartzea eragozten dioten edo hezetasunagatik hondatzea dakarkioten plaka, lauza edo forruak jarrita ere.

b) Lehendik dagoen egituraren profila, modulazioa eta proportzioak, horma-lodierak eta altuerak babestuko dira.

c) Zubiaren kargak transmititzeko eta banatzeko sistemari eutsiko zaio, gainkarga puntual batzuekin behartu gabe, eta karez eta harriz egindako gangen ordez hormigoi armatuz edo altzairu elektrosoldatuz egindako egituren bidez zurrundu gabe.

d) Berariaz debekatuta daude trabaketa-uztai jarraituak, euste-hormak sendotzeko tiranteak, zementu-morteroz betetako arimak, zementu-esnearen injekzio masiboak (jet grouting edo antze-koak) eta gangak hormigoi armatuzko azalez estaltzea.

e) Euste-hormen egituretan, arkuetan, gangetan eta lauzetan ez da zulorik edo horma-zulorik egingo. Euste-hormetan ez dira onartuko zementu-morteroz egindako juntura masiboak: transpirazioa bideratzen duten eta efloreszentziak eragozten dituzten kare hidrauliko natural puruz egindako masak erabiliko dira.

f) Ez da onartuko zatiak kentzea irizpide estetikoak soilik aintzat hartuta, edo multzoaren konposizioa andeatzen duten eranskinak direla iritzita. Eranskin diskordanteak direlako desmuntatu ahal izateko, berariaz jasota egon beharko dute araubide honetan ageri den zerrendan, eta hala direla joko da lehendik dauden eraikin babestuetan kalte edo aldaketak eragiten badituzte, egiturari edo eraikuntzari dagokionez.

g) Ez da onartuko zubiaren taularen ordez zementuzko hormigoi armatuz egindako zola edo lauza bat jartzea.

h) Euste-hormen egiturek, arkuek, gangek eta lauzek, ondasunaren memoria eraikiaren zati diren aldetik, horiek guztiak sortu dituen kultura materialari buruzko informazioa daukate. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordez, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerei, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

6.– Petrilei, hegalei edo ubideratze-hormei, laguntza-hormei eta manguardiei babes berezia ematea:

a) Harlangaitz-horma ilaratuz, harlanduxkaz edo harlanduz egindako atalak babestuko dira, material bereko erremate edo gailur eta guzti, baita lauzaz egindako atalak, arretaz landutako lauzak eta ortostatoetako petrilak ere. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haiek eraikuntza-soluzio gisa funtzionatzea eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordez, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerari, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak edo deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

b) Lotura tradizionalak zainduko dira (arteka eta mihia, miru-buztana, burdinazko grapak eta beruna) eta proiektuko dokumentuetan agertuko dira. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz

kanpoko kasuetan, haiek eraikuntza-soluzio gisa funtzionatzea eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordez, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerari, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak edo deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

c) Galtzadari emandako espazio funtzionala, esku hartzeko unean petrilek mugatzen dutena, zabaldu ahal izango da, baldintza hauek betetzen badira:

– Ez ditu inbaditu behar gainerako gunek babestuak: plaza txikiak, espaloiak. Den dela, azken kasu horretan, oinezkoentzako eta ibilgailuentzako espazioak plano berean kokatzeko aukera emango da, zirkulazio mistoa bideratze aldera.

– Sarbideak antolatu behar dira zubira sartzeko plaza txikien funtzioa galarazi gabe, halakorik balego, eta haien azalera beste erabilera batzuekin inbaditu gabe.

d) Plaza txikiak hartzen duen espazioa, laguntza-hormek eta manguardiek mugatua, ezingo da konpartimentutan banatu. Halaber, espazio horren sarbide- eta igarobide-funtzioari eutsiko zaio, gutxienez, eta haren hasierako forma eta neurriak errespetatuko dira.

#### 7.– Zoladurei babes berezia ematea.

Hondarrezko oinarri baten gainean lauzaz, harlauzaz, harri zabalaz, uharriz edo galtzada-harri naturalez egindako zoladurak konpontzeko jarduerak edo esku-hartzeak egiteko, kaltetutako materialen ordez jarriko dira haien antzeko beste batzuk. Ezingo dira masiboki ordezkatu honako material hauek baliatuta: harri artifiziala, zementu-mortero koloreduna, plakak, edo transpirazioa eragozten duten xaflak (esate baterako, asfaltozko aglomeratuak). Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordez, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerei, formei, atalei, diseinuei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

#### 8.– Arotzeriari eta errementaritzari babes berezia ematea.

a) Barandak eta egurrezko karek xumeak kontserbatuko dira, segurtasun-funtzioa betetzeko desegokiak ez badira. Halaber, egurrezko elementu bereziak (eskubanda torneatuak, taxutuak edo zizelkatuak, eta balkoietan, kareletan eta barandetan tradiziozko forjaketaz egindako errementaritza-lanak) kontserbatu beharko dira. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordez, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerei, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

b) Arotzeria, baranda eta burdin hesi berrien diseinua egokituko da, materialei eta formei, tamainari eta itxurari dagokienez, antzinakoen eta/edo zubiaren adierazle hoberenen arabera.

#### 9.– Dekorazio-harrilanei babes berezia ematea.

Harrizko elementu apaingarriak (erlaitzak, behe-erliebeak, azpadurak, harburuak eta abar) jatorrizko funtzio praktiko edo estetikoa betetzeko eta lehen zuten toki berean erabiliko dira zehatz-mehatz, eta ez testuingurutik ateratako dekorazio-elementu gisa.



10.– Estaldurei eta akaberei babes berezia ematea.

Jarduerek edo esku-hartzeek honako parametro hauek bete beharko dituzte:

a) Kanpoko estaldura apaingarri tradizionalak (esgrafiatuak edo juntura ebakiak) eta uharriz egindako artisau-zoruak eraikuntzaren zati bereizezinak direla ulertuko da; pertzepzio estetikoaren faktore erabakigarriak dira eta ezingo dira kendu erabat. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordez, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerei, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

b) Bereziki babestu behar dira, testuingurutik atera gabe, eskuz edertutako elementu guztiak, erreproduzitu ezin diren artisau-lanak diren aldetik.

c) Hormen kanpoko estalduren testurek eta itxura kromatikoek eredu tradizionalen arabekoak izan beharko dute, kare-morteroz egindako juntura hondoratuak, berdinduak edo irtenak erabilteari dagokionez, zuriz edo harea kolorez margotuak, luzituak eta kareztatuak.

11.– Instalazioei babes berezia ematea.

Jarduerek edo esku-hartzeek honako parametro hauek bete beharko dituzte:

a) Arrapalak eta eskailerak jartzeko behar diren egiturek ez dituzte sortuko zubiaren jatorrizko sostengu-sistemaren oreka hondatuko duten zurruntzeak edo gainkargak. Haien zamen transmisioa aztertuko da, elementu osagarri eta independente gisa, eta, ahal bada, berariazko zimenduak izango dituzte.

b) Egitura horiek diseinatuko dira multzoaren irudi globalean integratuta, haren pertzepzioan aldaketarik sortu gabe, eta, begi-bistan geratuko badira, material arinak eta erabat itzulgarriak erabiliko dira.

c) Obra berriaren eta lehengo eraikuntzaren arteko ukipen-azalaren tratamendua bereziki zainduko da, ekarpen berriak kenduz gero ez daitezen inolaz ere hondatu antzinako elementuak. Horrenbestez, nahitaez saihestu behar da fabrika babestuetan landatzea, itzulgarriak ez diren zorroak jartzea edo zuloak egitea. Halaber, xaflak jarri behar dira egungo morteroak eta antzinako eraikuntza bereizteko, eta sistema arin, industrializatu eta desmuntagarriak erabili behar dira lehendik dauden eraikinak ukituko dituzten bolumenak eraikitzeke.

d) Telekomunikazio- eta elektrizitate-ekipoen makinak, elementu osagarriak eta antzeko beste instalazio guztiak bildu beharko dira espazio publikotik ikusten ez diren espazio komunetan.

## IV. KAPITULUA

### BABES ERTAINA

#### 1. ATALA

### BABES BEREZIAREN XEDEA

15. artikulua.– Babes ertaina definitzea.

1.– Babes ertaina izango dute, oro har, ohiz kanpoko balioa duten elementuak ez izan arren, ondare eraikiaren zati interesgarri direnak, zenbait ezaugarriren berezitasunagatik (egitura,

eraikuntza-soluzioak, funtzioari edo espazio-antolaketari eustea, konposizioa, alderdi formalak eta balio historikoa).

2.– Talde honetan sartzen dira, hain zuzen, berriki aldaketak pairatu arren, hormetan eta/edo egituran antzinako obra neurri handi batean kontserbatzen duten eraikuntzak. Zubian egindako berrikuntzek ez dute ezabatu behar fabriketan kontserbatu den informazio historikoa, eta babes-tuko dira, irakurgarriak diren heinean.

16. artikulua.– Oinarrizko babesaren emateko mailan sartuta dauden elementuak.

1.– Babes ertaina duen zubiak egitura-balioa baldin badu, babes-araubide honetan ageri den 2. zerrendan adierazten denaren arabera, ulertuko da egitura-koherentziagatik babestuta daudela honako elementu hauek:

a) Horma-bularrak, pilak, zubi-brankak eta harlangaitz-horma ilaratuz egindako ezproiak, harlanduxkekin edo harlanduekin nahastuta.

b) Gangak, honako buru hauek dituztenak:

– Askotariko zabalera eta ertzak dituzten pieza edo harlandu luzeak, arkugainera koskaduna, harribil arinez edo mortero-zerrenda zakarrez egindako junturak.

– Antzeko zabalera eta ertzak dituzten harlandu luzeak, edo tamaina ertaineko falka-formako dobelak; harribilik gabe eta junturetan mortero-geruza fina emanda; lerro jarraituko arkugainera.

– Falka-formako dobelak ertain eta handiak, eta kare-esne oso finez edo hezurrez egindako juntura; arkugainera uniformeak.

c) Plementeria erresistentea:

– Harlangaitz-horma ilaratuz moldatua, harribil gutxi erabilita, junturetan morteroarekin edo gabe.

– Harlanduxkaz edo harlanduz moldatua, ilarak gehiago direla dobelak baino, juntura finak.

– Erabat eskuairatutako harlanduz moldatua, ilara isodomoak edo pseudoisodomoak osatuta.

d) Tinpanoak:

– Harlangaitz-horma ilaratuak eta harlanduxkak nahastuta moldatuak, buruekin erregularitasunez uztartuta.

– Harlanduxkak eta harlanduak nahastuta moldatuak, buruekin arretaz uztartuta.

– Inposta jarraituz errematea eginda, horma-ataletan edo hegaletan, harburuen bidez, edo beste sistemaren bat baliatuta.

e) Azaleko zimenduak arrokaren edo harrizko hondoaren gainean, harlangaitz-horma ilaratuz, harlanduxkaz edo harlanduz moldatutako zokalo bat eginda, inposta molduradunaz edo moldurarik gabeaz errematatuta, zinzuria jartzeko irtengune eta guzti.

f) Egurrezko pilote sakonez jarritako zimenduak, egurrezko zepak eta betegarria; piloteak eta zutoin-oholen barrutia; kare-hormigoiz betetako kaxa.

g) Elementu bereziak:

– Harri landuz, adreilu trinkoz edo zulodunez egindako zutabe, pilare eta mentsula apainduak, harroinak.

- Harrizko arku dekoratuak, molduradunak. Bereziki, arku zorrotzak, karpanelak edo beheratuak.
- Kontrahormak edo zubi-brankak, harlangaitz-horma ilaratuz egindako ezproiak, harlanduxkak, inposta molduradunaz edo txapelaz errematatutako harlanduak.
- Inpostak, erlaitzak, txapelak, dekoratuak, molduradunak edo irtengunea dutenak, harri landuz eginak.
- Harrian landutako inskripzioak eta behe-erliebea.

2.– Babes ertaina duen zubiak eraikuntza-balioa baldin badu, babes-araubide honetan ageri den 2. zerrendan adierazten denaren arabera, ulertuko da eraikuntza-koherentziagatik babestuta daudela honako elementu hauek:

a) Horma-bularrak, pilak, zubi-brankak eta harlangaitz-horma ilaratuz egindako ezproiak, harlanduxkekin edo harlanduekin nahastuta.

b) Gangak, honako buru hauek dituztenak:

– Askotariko zabalera eta ertzak dituzten pieza edo harlandu luzeak, arkugainera koskaduna, harribil arinez edo mortero-zerrenda zakarrez egindako junturak.

– Antzeko zabalera eta ertzak dituzten harlandu luzeak, edo tamaina ertaineko falka-formako dobelak; harribilik gabe eta junturetan mortero-geruza fina emanda; lerro jarraituko arkugainera.

– Falka-formako dobela ertain eta handiak, eta kare-esne oso finez edo hezurrez egindako juntura; arkugainera uniformeak.

c) Plementeria erresistentea:

– Harlangaitz-horma ilaratuz moldatua, harribil gutxi erabilia, junturetan morteroarekin edo gabe.

– Harlanduxkaz edo harlanduz moldatua, ilarak gehiago direla dobelak baino, juntura finak.

– Erabat eskuairatutako harlanduz moldatua, ilara isodomoak edo pseudoisodomoak osatuta.

d) Tinpanoak:

– Harlangaitz-horma ilaratuak eta harlanduxkak nahastuta moldatuak, buruekin erregularitasunez uztartuta.

– Harlanduxkak eta harlanduak nahastuta moldatuak, buruekin arretaz uztartuta.

– Inposta jarraituz errematea eginda, horma-ataletan edo hegaletan, harburuen bidez, edo beste sistemaren bat baliatuta.

e) Petrilak, hegalak edo bideratze-hormak, laguntza-hormak eta manguardiak, honela eginak:

– Harlangaitz-horma ilaratuz moldatua, material bereko erremateak edo gailurrak eginda, edo lauzak horma-ataletan.

– Harlanduxkaz egina, arretaz landutako tamaina handiko harlauzez erremateak edo gailurrak eginda.

– Harlanduz egina, arretaz landutako tamaina handiko harlauzez erremateak edo gailurrak eginda.

– Petrilak ortostatoetan, erremateak horizontalean eginda, ganbilean, bi isurialdetara. Baliteke piezak askotariko mihizadura hauen bitartez elkartuta agertzea: arteka eta mihia, miru-buztana, burdinazko grapak eta beruna.

f) Galtzada zaharberritua, harri naturalezko lauzaz, uharriz, eta galtzada-harriz egindako zoladura duena, hondarrezko oinarri baten gainean.

g) Uharriz edo errekarritz egindako jatorrizko zoladura duen galtzada, hondarrezko oinarri baten gainean, enkatxoa edo harzola duena, galtzada-harrizkoa.

h) Uharriz edo errekarritz egindako jatorrizko zoladura duen galtzada, hondarrezko oinarri baten gainean, erdian edo alboetan kordoia edo kordoiak dituena, luzetarako edo zeharkako isurki edo hustubide eta guzti.

i) Azaleko zimenduak arrokaren edo harrizko hondoaren gainean, harlangaitz-horma ilaratuz, harlanduxkaz edo harlanduz moldatutako zokalo bat eginda, inposta molduradunaz edo moldurarik gabeaz errematatuta, zimbria jartzeko irtengune eta guzti.

j) Egurrezko pilote sakonez jarritako zimenduak, egurrezko zepak eta betegarria; piloteak eta zutoin-oholen barrutia; kare-hormigoiz betetako kaxa.

k) Elementu bereziak:

– Harri landuz apaindutako harburuak.

– Arku apainduak, molduradunak edo irtengunea dutenak, harri landuz eginak. Bereziki, arku zorrotzak, karpanelak edo beheratuak.

– Kontrahormak, zubi-brankak, harlangaitz-horma ilaratuz egindako ezproiak, harlanduxkak, inposta molduradunaz edo txapelaz errematatutako harlanduak.

– Inpostak, erlaitzak, txapelak, dekoratuak, molduradunak edo irtengunea dutenak, harri landuz eginak.

– Harrian landutako inskripzioak eta behe-erliebea.

3.– Babes ertaina duen zubiak espazio-antolaketako balioa baldin badu, babes-araubide honetan ageri den 2. zerrendan adierazten denaren arabera, ulertuko da espazio-antolaketatik babestuta daudela honako elementu hauek:

a) Galtzada edo bidea, zamabereen, animaliek tiratutako ibilgailuen eta ibilgailu motordunen joan-etorrietarako gaituta dagoen espazioa.

b) Oinezkoen joan-etorrietarako gaituta dauden espazioak: espaloiak.

c) Oinezkoak gurutzatzean baztertzeko, atsedean hartzeko, egonerako edo bistak ikusteko gaituta dauden espazioak: bazterbideak.

d) Ibilgailuak irsteko, sartzeko eta irteteko edo zain egoteko espazio komuna: plaza txikiak.

e) Espazio horiek kontserbatu beharko dira erregistratu ziren unean zuten hedadurari eutsiz, gutxienez, eta bakoitzaren balizko handitzea egingo da, betiere, gainerako eremua eta funtzioa kaltetu gabe.

4.– Babes ertaina duen zubiak konposizio- eta forma-balioa baldin badu, babes-araubide honetan ageri den 2. zerrendan adierazten denaren arabera, ulertuko da konposizio- eta forma-koheren-tziatik babestuta daudela honako elementu hauek:

a) Taulen eta inposten bolumen inguratzailea, altuera, modulazioa eta profila, eta zubiaren baoen neurriak eta antolaketa.

b) Zizelkatuta apaindutako elementuak:

– Dobelak, inpostak, petrilak, harlanduak eta mihiztadurak, apaingarri zizelkatuak edo alaka, moldura edo arteka estetikoak dituztenak.

– Barandak, egurrezko karek geometrikoak; eskubanda torneatuak, taxutuak edo zizelkatuak.

c) Forjaketa tradizionalaz egindako errementaritza-lan apaingarriak balkoietan, kareletan, barandetan eta burdin hesietan.

d) Karez margotutako edo esgrafiatutako horma-atalak.

e) Elementu bereziak:

– Arku apainduak, molduradunak edo irtengunea dutenak, harri landuz eginak. Bereziki, arku zorrotzak, karpanelak edo beheratuak.

– Kontrahormak edo zubi-brankak, harlangaitz-horma ilaratuz egindako ezproiak, harlanduxkak, inposta molduradunaz edo txapelaz errematatutako harlanduak.

– Inpostak, erlaitzak, txapelak, molduradunak edo irtengunea dutenak, harri landuz eginak.

– Harrian landutako inskripzioak eta behe-erliebea.

5.– Babes ertaina duen zubiak balio historikoa baldin badu, babes-araubide honetan ageri den 2. zerrendan adierazten denaren arabera, ulertuko da koherentzia historikoagatik babestuta daudela honako elementu hauek:

a) Balioespen-fitxetan XX. mendea baino lehenagoko faseetan eraikitako elementu guztiak (horma-atalak eta plementeria, arotzeria, errementaritza eta estaldurak). 1901etik 2000ra bitartean egin ziren eraikuntza-ekintzak alde batera uzten dira, ulertzen baita sarritan egin zirela komunikabideen zati gisa zuten izaerarekin bat ez zetozen erabileretarako, batez ere mendearen erdialdean funtzio hori masiboki galdu ostean.

b) Elementu bereziak:

– Arku eta ateburu apainduak, molduradunak edo irtengunea dutenak, harri landuz eginak. Bereziki, arku zorrotzak, karpanelak edo beheratuak.

– Kontrahormak edo zubi-brankak, harlangaitz-horma ilaratuz egindako ezproiak, harlanduxkak, inposta molduradunaz edo txapelaz errematatutako harlanduak.

– Inpostak, erlaitzak, txapelak, dekoratuak, molduradunak edo irtengunea dutenak, harri landuz eginak.

– Harrian landutako inskripzioak eta behe-erliebea.

## 2. ATALA

### BABES ERTAINAREN ARAUBIDE XEHATUA

17. artikulua.– Babes ertaineko mailan sartu diren elementuei buruzko agindu orokorrak.

1.– Babes ertaina duten ondasunak maila ertaineko kontserbazioaren xede dira. Ondasun horietan egiten diren lehengoratzeko-jarduerek erabilera eta ohitura berrietara zertxobait egokitzea ekar dezakete, betiere bakoitzaren ezaugarriei, funtsezko egiturei eta espazio-antolaketei eutsita.

2.– Elementu horiei eragiten dien edozein lan edo esku-hartzetan ezingo da aldatu konfigurazio bolumetrikoa. Ohiz kanpoko kasua izango da zerbitzuak osatzeko edo irisgarritasuna zein komunikazioak bideratzeko ezinbestean erantsi beharreko eraikuntza berriko obrak. Esku-hartze horiek koherentzia osoa izan behar dute lehendik dagoen zubiarekin, harekin integratu behar dute, konposizioari eta ikuspegiari dagokionez, ez dituzte zubiaren balioak andeatu behar, ezta hura begiratzea eragotzi, galarazi edo distortsionatu ere.

18. artikulua.– Babes ertaina duten ondasunetan onartzen diren jarduerak.

1.– Elementu horietan onartuko dira haiek kontserbatzea eta haien balioa azpimarratzea helburu duten esku-hartzeak, koherentzia-irizpide justifikatuak oinarri hartuta eraikiz gero, babes-araubide honen 2. zerrendan ondasunen balioak (egitura, eraikuntza, espazio-antolaketa, konposizioa, forma edo balio historikoa) direla-eta xedatuta dagoenari zorrotz jarraituz.

2.– Babes ertaineko zubiak egitura-balioa baldin badu, babes-araubide honetan ageri den 2. zerrendan adierazten denaren arabera, ulertuko da egiturazko babesa emateko ekintza xehatu hauek egin daitezkeela:

a) Asentuari egiturazko babesa ematea Jarduerak edo esku-hartzeak honako parametro hauek bete beharko dituzte:

1) Indusketak eta lur-mugitzeak egiteko lizentzien eskaerak nahikoa dokumentatu beharko dute lursailaren hasierako egoera, haren profil topografikoak, lurzoru motak, eta elementu bereziak.

2) Zimenduak eta euste-hormak ez dira zementu-hormigoiz gogortuko, jatorrizko fabrikari eutsita. Izatekotan, ondoztatu ahal izango dira, fabrika berria eta jatorrizkoa bereizita, xafla geotestil bikoitza eta kare hidrauliko natural puruz egindako mortero-geruza bat baliatuta, eta, sendotzeko, kare hidrauliko natural puruz eta erreka-harea ez azidoz egindako juntura partzialak erabili ahal izango dira.

3) Indusketek eta lur-mugimenduek oso kontuan hartu beharko dute eskuarki egitura-sistema isostatiko ez zurruneekin egiten dela lan, eta zimenduak sarritan jartzen direla lurzoru buztintsu ezegonkorretan. Zangak gehiegi lehortzea eragotziko da, oinarriak ez daitezen desagokiak izan.

4) Babes ertaina duten ondasun higiezinak ezin dira kokalekutik bereizi. Ondasun horiek lekualdatzea ez da lehengoratze-ekintzat hartzen.

b) Egiturari egiturazko babesa ematea Jarduerak edo esku-hartzeak honako parametro hauek bete beharko dituzte:

1) Egiturretan (horma-bularrak, pilak, zubi-brankak eta ezproiak, gangak eta buruak, plementeria erresistentea, tinpanoak) jardungo da soil-soilik bakoitzari dagokion sostengu-funtzioa betetzen ez duten elementu bakanak (harlanduak, harlanduxkak, harlangaitzak, dobelak eta abar) konpontzeko, kentzeko edo ordeztzeko. Galtzadaren azpiko betegarria edo beste elementu zurrungarri batzuk ikuskatuko dira, haien gabeziak multzoa itxuragabetzea eragin ote duen aztertzeko. Hala izanez gero, lehengoratuko dira, dokumentuetan jasotako neurri eta kokapenen arabera edo pre-miak kontuan hartuta.

2) Lehendik dagoen egituraren modulazioa eta proportzioak babestuko dira, horma-lodierak eta altuerak ere barnean hartuta.

3) Zubiaren kargak transmititzeko eta banatzeko sistemari eutsiko zaio, gainkarga puntual batzuekin behartu gabe, eta karez eta harriz egindako gangen ordeztu hormigoizko armatuz edo altzairu elektrosoldatuz egindako egituren bidez zurrundu gabe.

4) Berariaz debekatuta daude trabaketa-uztai jarraituak, euste-hormak sendotzeko tiranteak, zementu-morteroz betetako arimak, zementu-esnearen injekzio masiboak (jet grouting edo antze-koak) eta gangak hormigoi armatuzko azalez estaltzea.

5) Ez da onartuko zubiaren taularen ordeztu zementuzko hormigoi armatuz egindako zola edo lauza bat jartzea.

6) Euste-hormen egiturek, arkuak, gangoak eta lauak, ondasunaren memoria eraikiaren zati diren aldetik, horiek guztiak sortu dituen kultura materialari buruzko informazioa daukate. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordeztu, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerei, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

c) Petrilei, hegalei edo ubideratze-hormei, laguntza-hormei eta manguardiei egiturazko babesa ematea Jarduerak edo esku-hartzeak lotura tradizionalak zaindu beharko dituzte (arteka eta mihia, miru-buztana, burdinazko grapak eta beruna) eta proiektuko dokumentuetan agertuko dira. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haiek eraikuntza-soluzio gisa funtzionatzea eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordeztu, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerari, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak edo deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

d) Zoladurei egiturazko babesa ematea Hondarrezko oinarri baten gainean lauaz, harlauaz, harri zabalaz, uharriz edo galtzada-harri naturalez egindako zoladurak konponduko dira kaltetutako materialen ordeztu haien antzeko beste batzuk jarrita. Ezingo dira masiboki ordeztatu honako material hauek baliatuta: harri artifiziala, zementu-mortero koloreduna, plakak, edo transpirazioa eragozten duten xaflak (esate baterako, asfaltozko aglomeratuak). Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordeztu, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerei, formei, atalei, diseinuei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

e) Dekorazio-harrilanei egiturazko babesa ematea Harrizko elementu apaingarriak (behe-erliebeak, azpadurak, harburuak eta abar) jatorrizko funtzio praktiko edo estetikoak betetzeko eta lehen zuten toki berean erabiliko dira zehatz-mehatz, eta ez testuingurutik ateratako dekorazio-elementu gisa.

f) Instalazioei egiturazko babesa ematea Jarduerak edo esku-hartzeak honako parametro hauek bete beharko dituzte:

1) Arrapalak eta eskailerak jartzeko behar diren egiturek ez dituzte sortuko zubiaren jatorrizko sostengu-sistemaren oreka hondatuko duten zurruntzeak edo gainkargak. Haien zamen transmisioa aztertuko da, elementu osagarri eta independente gisa, eta, ahal bada, berariazko zimenduak izango dituzte.

2) Obra berriaren eta lehengo eraikuntzaren arteko ukipen-azalaren tratamendua bereziki zainduko da, ekarpen berriak kenduz gero ez daitezkeen inolaz ere hondatu antzinako elementuak. Horrenbestez, nahitaez saihestu behar da fabrika babestuetan landatzea, itzulgarriak ez diren

zorroak jartzea edo zuloak egitea. Halaber, xaflak jarri behar dira egungo morteroak eta antzinako eraikuntza bereizteko, eta sistema arin, industrializatu eta desmontagarriak erabili behar dira lehendik dauden eraikinak ukituko dituzten bolumenak eraikitzeke.

3.– Babes ertaina ematen zaion zubiak eraikuntza-balioa baldin badu, babes-araubide honetan ageri den 2. zerrendan adierazten denaren arabera, ulertuko da eraikuntza-babesa emateko ekin-tza xehatu hauek egin daitezkeela:

a) Asentuari eraikuntza-babesa ematea Jarduerak edo esku-hartzeak honako parametro hauek bete beharko dituzte:

1) Indusketak eta lur-mugitzeak egiteko lizentzien eskaerak nahikoa dokumentatu beharko dute lursailaren hasierako egoera, haren profil topografikoak, lurzoru motak, eta elementu bereziak.

2) Ondoztatu behar diren zimendu eta euste-hormak ondo bereizi beharko dira haien sendotzeko jarriko diren zapata, lauza edo horma berrietatik, xafla geotestil bikoitzaren bidez, baita kare hidrauliko natural puruz eta erreka-harea ez-azidoz egindako garbiketa-morteroaren bidez ere.

3) Ondoztatu behar diren zimendu eta euste-hormak ez dute inolaz ere sortuko lurpeko uren pilaketarik, ezta zubiaren fabrikek ukitzen dituzten lurzoruen maila freatikoaren igoerarik ere.

4) Balioespen-fitxan mugatutako ingurune babestuaren hasierako urbanizazioa eta proposamenean jaso dena grafikoki zehaztuta adierazi beharko dira arkitektura-proiektuaren planoetan, dokumentazio horren beharra duten esku-hartzeak izanez gero. Ingurune hurbilaren urbanizazioan ez dira jarriko zementu-hormigoizko lauza masiboak, lurzoruko hezetasuna kapsulatu eta kapilarren bidez hormetara bidaltzen dutenak. Aztertu beharko da antzinako horma eta zoladurak ukitzen dituzten lurren aireztapen egokia, eta ez dira inolaz ere irazgaiztuko izerdia botatzea eragozten duten xafla edo emulsioren bitartez.

5) Babes ertaina duten ondasun higiezinak ezin dira kokalekutik bereizi. Ondasun horiek lekualdatzea ez da lehengoratzeko-ekintzat hartzen.

b) Egiturari eraikuntza-babesa ematea Jarduerak edo esku-hartzeak honako parametro hauek bete beharko dituzte:

1) Harlangaitz-horma ilaratuz, harlanduxkaz edo harlanduz egindako sostengu-elementuen ataletan eta zenbait egituratan (horma-bularrak, pilak, zubi-brankak eta ezproiak, gangak eta buruak, plementeria erresistentea, tinpanoak) jardungo da soil-soilik bakoitzari dagokion sostengu-funtzioa betetzen ez duten elementu bakanak (harlanduak, harlanduxkak, harlangaitzak, dobelak eta abar) konpontzeko, kentzeko edo ordeztzeko. Galtzadaren azpiko betegarria edo beste elementu zurrungarri batzuk ikuskatuko dira, haien gabeziak multzoa itxuragabetzea eragin ote duen aztertzeko. Hala izanez gero, lehengoratuko dira, dokumentuetan jasotako neurri eta kokapenen arabera edo premiak kontuan hartuta. Ezin da kareorezko horma masiboen egitura kapsulatu zementu-morteroz zarpiatuta eta aireztatu gabe, ezta materialari arnasa hartzea eragozten dioten edo hezetasunagatik hondatzea dakarkioten plaka, lauza edo forruak jarrita ere.

2) Berariaz debekatuta daude trabaketa-uztai jarraituak, hormak sendotzeko tiranteak, zementu-morteroz betetako arimak, zementu-esnearen injekzio masiboak (jet grouting edo antze-koak) eta gangak hormigoi armatuzko azalez estaltzea.

3) Euste-hormen egituretan, arkuetan, gangetan eta lauzetan ez da zulorik edo horma-zulorik egingo. Euste-hormetan ez dira onartuko zementu-morteroz egindako juntura masiboak: transpirazioa bideratzen duten eta efloreszentziak eragozten dituzten kare hidrauliko natural puruz egindako masak erabiliko dira.



4) Ez da onartuko zatiak kentzea irizpide estetikoak soilik aintzat hartuta, edo multzoaren konposizioa andeatzen duten eranskinak direla iritzita. Eranskin diskordanteak direlako desmuntatu ahal izateko, berariaz jasota egon beharko dute araubide honetan ageri den zerrendan, eta hala direla joko da lehendik dauden eraikin babestuetan kalte edo aldaketak eragiten badituzte, egiturari edo eraikuntzari dagokionez.

5) Ez da onartuko zubiaren taularen ordeztuzko hormigoi armatuz egindako zola edo lauza bat jartzea.

6) Euste-hormen egiturek, arkuek, gangek eta lauzek, ondasunaren memoria eraikiaren zati diren aldetik, horiek guztiak sortu dituen kultura materialari buruzko informazioa daukate. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordeztuz, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerei, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

c) Petrilei, hegalei edo ubideratze-hormei, laguntza-hormei eta manguardiei egiturazko babesa ematea Jarduerek edo esku-hartzeek honako parametro hauek bete beharko dituzte:

1) Harlangaitz-horma ilaratuz, harlanduxkaz edo harlanduz egindako atalak babestuko dira, material bereko erremate edo gailur eta guzti, baita lauaz egindako atalak, arretaz landutako lauza eta ortostatoetako petrila ere. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haiek eraikuntza-soluzio gisa funtzionatzea eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordeztuz, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerari, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak edo deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

2) Lotura tradizionalak zainduko dira (arteka eta mihia, miru-buztana, burdinazko grapak eta beruna) eta proiektuko dokumentuetan agertuko dira. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haiek eraikuntza-soluzio gisa funtzionatzea eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordeztuz, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerei, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak edo deskribapenak), esku hartzeko proiektua beharrezkoa den kasuetan.

d) Zoladurei egiturazko babesa ematea Hondarrezko oinarri baten gainean lauaz, harlauzaz, harri zabalaz, uharriz edo galtzada-harri naturalez egindako zoladurak konponduko dira kaltetutako materialen ordeztuz haien antzeko beste batzuk jarrita. Ezingo dira masiboki ordezkatu honako material hauek baliatuta: harri artifiziala, zementu-mortero koloreduna, plakak, edo transpirazioa eragozten duten xaflak (esate baterako, asfaltozko aglomeratuak). Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordeztuz, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerei, formei, atalei, diseinuei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

e) Arotzeriari eta errementaritzari eraikuntza-babesa ematea Jarduerek edo esku-hartzeek honako parametro hauek bete beharko dituzte:

1) Barandak eta egurrezko karek xumeak kontserbatuko dira, segurtasun-funtzioa betetzeko desegokiak ez badira. Halaber, egurrezko elementu bereziak (eskubanda torneatuak, taxutuak

edo zizelkatuak, eta balkoietan, kareletan eta barandetan tradiziozko forjaketaz egindako errementaritzak-ianak) kontserbatu beharko dira. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordez, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerei, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

2) Arotzeria, baranda eta burdin hesi berrien diseinua egokituko da, materialei eta formei, tamainari eta itxurari dagokienez, antzinakoen eta/edo zubiaren adierazle hobereenen arabera.

f) Dekorazio-harrilanei eraikuntza-babesa ematea Harrizko elementu apaingarriak (erlaitzak, behe-erliebeak, azpadurak, txapelak eta abar) jatorrizko funtzio praktiko edo estetikoak betetzeko eta lehen zuten toki berean erabiliko dira zehatz-mehatz, eta ez testuingurutik ateratako dekorazio-elementu gisa.

g) Estaldurei eta akaberei eraikuntza-babesa ematea Jarduerak edo esku-hartzeak honako parametro hauek bete beharko dituzte:

1) Kanpoko estaldura apaingarri tradizionalak (esgrafiatuak edo juntura ebakiak) eta uharriz egindako artisau-zoruak eraikuntzaren zati bereizezinak direla ulertuko da; pertzepzio estetikoaren faktore erabakigarriak dira eta ezingo dira kendu erabat. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordez, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, materialei, portaerei, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektuaren beharra dagoen kasuetan.

2) Bereziki babestu behar dira, testuingurutik atera gabe, eskuz edertutako elementu guztiak, erreproduzitu ezin diren artisau-ianak diren aldetik.

3) Hormen kanpoko estalduren testurek eta itxura kromatikoek eredu tradizionalen arabekoak izan beharko dute, kare-morteroz egindako juntura hondoratuak edo irtenak erabiltzeari dagokionez, zuriz edo harea kolorez margotuak, luzituak eta kareztatuak.

h) Instalazioei eraikuntza-babesa ematea Obra berriaren eta lehengo eraikuntzaren arteko ukipen-azalaren tratamendua bereziki zainduko da, ekarpen berriak kenduz gero ez daitezkeen inolaz ere hondatu antzinako elementuak. Horrenbestez, nahitaez saihestu behar da fabrika babestuetan landatzea, itzulgarriak ez diren zorroak jartzea edo zuloak egitea. Halaber, xaflak jarri behar dira egungo morteroak eta antzinako eraikuntza bereizteko, eta sistema arin, industrializatu eta desmuntagarriak erabili behar dira lehendik dauden eraikinak ukituko dituzten bolumenak eraikitzeko.

4.– Babes ertaina ematen zaion zubiak espazio-antolaketako balioa baldin badu, babes-arau-bide honetan ageri den 2. zerrendan adierazten denaren arabera, ulertuko da espazio-antolaketako babesa emateko ekintza xehatu hauek egin daitezkeela:

a) Asentuari espazio-antolaketako babesa ematea Jarduerak edo esku-hartzeak honako parametro hauek bete beharko dituzte:

1) Indusketak eta lur-mugitzeak egiteko lizentzien eskaerak nahikoa dokumentatu beharko dute lursailaren hasierako egoera, haren profil topografikoak, lurzoru motak, eta elementu bereziak.

2) Balioespen-fitxan mugatutako ingurune babestuaren hasierako urbanizazioa eta proposamenean jaso dena grafikoki zehaztuta adierazi beharko dira arkitektura-proiektuaren planoetan, dokumentazio horren beharra duten esku-hartzeak izanez gero.

3) Kanpoko esparru babestuen bolumenak, azalera eta kokalekuak, babes-araubide honen II. eranskineko dokumentazio grafikoan ageri den zubiaren planoan eta proiektuan jasota dagoen egungo egoeraren planoan daudenak, zabaldu ahal izango dira soilik honako helburu hauekin lotutako erabileretarako: irisgarritasuna eta zerbitzuak hobetzea, aisialdia, edo esparrua zeharkatzen duten bide historikoei buruzko ezagutza hedatzea. Halaber, ezingo dute inbaditu gainerako esparru funtzional babestuek hartzen duten eremua; erantsitako bolumenak ez ditu eragotzi behar hasierako bistak, egungo esparru publikoaren puntu guztietatik begiratuta; eta erantsitako eraikuntzak egokitu behar dira alboan edo hurbil dituzten lehengo eraikuntzen ezaugarrien arabera.

4) Dokumentu honen II. eranskineko dokumentazio grafikoan zubi bakoitzarentzat mugatutako esparru babestuan ezingo da sortu ikuspegiarekin edo pertzepzioarekin lotutako kutsadurarik; alegia, ondasuna ikustea eragozten, galarazten edo distortsionatzen duten esku-hartze, erabilera edo ekintzak ez dira onartuko, eraikuntzak izan edo ez izan.

5) Eraikin multzoaren ikuspegia ezingo dute eragotzi honako elementu hauek:

- Eraikin berriak ondasun babestuarentzat mugatutako babes-esparruan.
- Aldi baterako eraikuntzak edo instalazioak, haien alturagatik, bolumenagatik edo distantziagatik pertzepzioa nahas dezaketenak.
- Energia hornitzeko, sortzeko eta kontsumitzeko behar diren instalazioak.
- Telekomunikazioetarako behar diren instalazioak.
- Idazkunak, seinaleak, hesiak eta kanpoko publizitatea jartzea.
- Hiri-altzariak jartzea, eguzki-oihalak, beilatokiak, kioskoak eta antzeko elementuak barnean hartuta.
- Hiri-hondakinak biltzeko elementuak jartzea.
- Beste edozein elementu edo jarduera, eraikina izan gabe ere, distortsioa edo eragin negatiboa sor badezake higiezin babestuen pertzepzioan, gozamenean, begiratzean edo osotasunean, eta babesaren xede diren balioak nolabait arriskuan jartzen baditu. Ez dira aintzat hartuko, atal honetan jasotako ondorioetarako, ingurumena zaintzea edo ibai-ibilguaren gaitasun hidraulikoa hobetzea helburu duten ibaiertza lehengoratzeko jarduerak.

6) Dokumentu honen II. eranskineko dokumentazio grafikoan ageri den ondasunaren muga barruan, ezingo da publizitate komertziala jarri, eta edonolako kable, antena eta hodi nabarmenak ezingo dira kokatu babes ertaina duten ondasun eraikietan.

7) Babes ertaina duten ondasun higiezinak ezin dira kokalekutik bereizi. Ondasun horiek lekualdatzea ez da lehengoratze-ekintzat hartzen.

b) Egiturari espazio-antolaketako babesa ematea Ez da onartuko zatiak kentzea irizpide estetikoak soilik aintzat hartuta, edo multzoaren konposizioa andeatzen duten eranskinak direla irizpidea. Eranskin diskordanteak direlako desmuntatu ahal izateko, berariaz jasota egon beharko dute araubide honetan ageri den zerrendan, eta hala direla joko da lehendik dauden eraikin babestuetan kalte edo aldaketak eragiten badituzte, egiturari edo eraikuntzari dagokionez.

c) Petrilei, hegalei, ubideratze-hormei eta manguardiei espazio-antolaketako babes ematea Jarduerak edo esku-hartzeek honako parametro hauek bete beharko dituzte:

1) Galtzadari emandako espazio funtzionala, esku hartzeko unean petrilek mugatzen dutena, zabaldu ahal izango da, baldintza hauek betetzen badira:

– Ez ditu inbaditu behar gainerako gunen babestuak: plaza txikiak, espaloiak. Den dela, azken kasu horretan, oinezkoentzako eta ibilgailuentzako espazioak plano berean kokatzeko aukera emango da, zirkulazio mistoa bideratze aldera.

– Sarbideak antolatu behar dira zubira sartzeko plaza txikien funtzioa galarazi gabe, halakorik balego, eta haien azalera beste erabilera batzuekin inbaditu gabe.

2) Plaza txikiak hartzen duen espazioa, laguntza-hormek eta manguardiek mugatua, ezingo da konpartimentutan banatu. Halaber, espazio horren sarbide- eta igarobide-funtzioari eutsiko zaio, gutxienez, eta haren hasierako forma eta neurriak errespetatuko dira.

d) Instalazioei espazio-antolaketako babes-ematea Jarduerak edo esku-hartzeek honako parametro hauek bete beharko dituzte:

1) Arrapalak eta eskailerak hartzeko behar diren egiturak diseinatuko dira multzoaren irudi globalean integratuta, haren pertzepzioan aldaketarik sortu gabe, eta, begi-bistan geratuko badira, material arinak eta erabat itzulgarriak erabiliko dira.

2) Telekomunikazio- eta elektrizitate-ekipoen makinak, elementu osagarriak eta antzeko beste instalazio guztiak bildu beharko dira espazio publikotik ikusten ez diren espazio komunetan.

5.– Babes ertaineko zubiak konposizio- eta forma-balioa baldin badu, babes-araubide honetan ageri den 2. zerrendan adierazten denaren arabera, ulertuko da konposizio- eta forma-babesa emateko ekintza xehatu hauek egin daitezkeela:

a) Asentuari konposizio- eta forma-babesa ematea Jarduerak edo esku-hartzeek honako parametro hauek bete beharko dituzte:

1) Indusketak eta lur-mugitzeak egiteko lizentzien eskaerak nahikoa dokumentatu beharko dute lursailaren hasierako egoera, haren profil topografikoak, lurzoru motak, eta elementu bereziak.

2) Balioespen-fitxan mugatutako ingurune babestuaren hasierako urbanizazioa eta proposamenean jaso dena grafikoki zehaztuta adierazi beharko dira arkitektura-proiektuaren planoetan, dokumentazio horren beharra duten esku-hartzeak izanez gero.

3) Kanpoko esparru babestuen bolumenak, azalera eta kokalekuak, babes-araubide honen II. eranskinen dokumentazio grafikoan ageri den zubiaren planoan eta proiektuan jasota dagoen egungo egoeraren planoan daudenak, zabaldu ahal izango dira soilik honako helburu hauekin lotutako erabileretarako: irisgarritasuna eta zerbitzuak hobetzea, aisialdia, edo esparrua zeharkatzen duten bide historikoei buruzko ezagutza hedatzea. Halaber, ezingo dute inbaditu gainerako esparru funtzional babestuek hartzen duten eremua; erantsitako bolumenak ez ditu eragotzi behar hasierako bistak, egungo esparru publikoaren puntu guztietatik begiratuta; eta erantsitako erai-kuntzak egokitu behar dira alboan edo hurbil dituzten lehengo eraikuntzen ezaugarrien arabera.

4) Dokumentu honen II. eranskinen dokumentazio grafikoan zubi bakoitzarentzat mugatutako esparru babestuan ezingo da sortu ikuspegiarekin edo pertzepzioarekin lotutako kutsadurarik; alegia, ondasuna ikustea eragozten, galarazten edo distortsionatzen duten esku-hartze, erabilera edo ekintzak ez dira onartuko, eraikuntzak izan edo ez izan.

- 5) Eraikin multzoaren ikuspegia ezingo dute eragotzi honako elementu hauek:
- Eraikin berriak ondasun babestuarentzat mugatutako babes-esparruan.
  - Aldi baterako eraikuntzak edo instalazioak, haien alturagatik, bolumenagatik edo distantziagatik pertzepzioa nahas dezaketenak.
  - Energia hornitzeko, sortzeko eta kontsumitzeko behar diren instalazioak.
  - Telekomunikazioetarako behar diren instalazioak.
  - Idazkunak, seinaleak, hesiak eta kanpoko publizitatea jartzea.
  - Hiri-altzariak jartzea, eguzki-oihalak, beilatokiak, kioskoak eta antzeko elementuak barnean hartuta.
  - Hiri-hondakinak biltzeko elementuak jartzea.
  - Beste edozein elementu edo jarduera, eraikina izan gabe ere, distortsioa edo eragin negatiboa sor badezake higiezin babestuen pertzepzioan, gozamenean, begiratzean edo osotasunean, eta babesaren xede diren balioak nolabait arriskuan jartzen baditu. Ez dira aintzat hartuko, atal honetan jasotako ondorioetarako, ingurumena zaintzea edo ibai-ibilguaren gaitasun hidraulikoa hobetzea helburu duten lehengora-jarduerak.
- 6) Dokumentu honen II. eranskineko dokumentazio grafikoan ageri den ondasunaren mugen barruan, ezingo da publizitate komertziala jarri, eta edonolako kable, antena eta hodi nabarmenak ezingo dira kokatu babes ertaina duten ondasun eraikietan.
- b) Egiturari konposizio- eta forma-babesa ematea Jarduerak edo esku-hartzeak honako parametro hauek bete beharko dituzte:
- 1) Zubi babestuaren profila, modulazioa, arku-aldaketa eta babes hidrodinamikoaren plantak konserbatuko dira.
  - 2) Ez da onartuko zatiak kentzea irizpide estetikoak soilik aintzat hartuta, edo multzoaren konposizioa andeatzen duten eranskinak direla iritzita. Eranskin diskordanteak direlako desmuntatu ahal izateko, berariaz jasota egon beharko dute araubide honetan ageri den zerrendan, eta hala direla joko da lehendik dauden eraikin babestuetan kalte edo aldaketak eragiten badituzte, egiturari edo eraikuntzari dagokionez.
  - 3) Euste-hormen egiturek, arkuak, gangek eta lauzek, ondasunaren memoria eraikiaren zati diren aldetik, horiek guztiak sortu dituen kultura materialari buruzko informazioa daukate. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordez, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektua beharrezkoa den kasuetan.
- c) Petrilei, hegalei edo ubideratze-hormei, laguntza-hormei eta manguardiei konposizio- eta forma-babesa ematea Jarduerak edo esku-hartzeak honako parametro hauek bete beharko dituzte:
- 1) Harlangaitz-horma ilaratuz, harlanduxkaz edo harlanduz egindako atalak babestuko dira, material bereko erremate edo gailur eta guzti, baita lauaz egindako atalak, arretaz landutako lauak eta ortostatoetako petrilak ere. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haiek eraikuntza-soluzio gisa funtzionatzea eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu

badira. Elementu kaltetuen ordeztu, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak edo deskribapenak), esku hartzeko proiektua beharrezkoa den kasuetan.

2) Lotura tradizionalak zainduko dira (arteka eta mihia, miru-buztana, burdinazko grapak eta beruna) eta proiektuko dokumentuetan agertuko dira. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haiek eraikuntza-soluzio gisa funtzionatzea eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordeztu, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak edo deskribapenak), esku hartzeko proiektua beharrezkoa den kasuetan.

3) Galtzadari emandako espazio funtzionala, esku hartzeko unean petrilek mugatzen dutena, zabaldu ahal izango da, baldintza hauek betetzen badira:

– Ez ditu inbaditu behar gainerako gune babestuak: plaza txikiak, espaloiak. Den dela, azken kasu horretan, oinezkoentzako eta ibilgailuentzako espazioak plano berean kokatzeko aukera emango da, zirkulazio mistoa bideratze aldera.

– Sarbideak antolatu behar dira zubira sartzeko plaza txikien funtzioa galarazi gabe, halakorik balego, eta haien azalera beste erabilera batzuekin inbaditu gabe.

4) Plaza txikiak hartzen duen espazioa, laguntza-hormek eta manguardiek mugatua, ezingo da konpartimentutan banatu. Halaber, espazio horren sarbide- eta igarobide-funtzioari eutsiko zaio, gutxienez, eta haren hasierako forma eta neurriak errespetatuko dira.

d) Zoladurei konposizio- eta forma-babesa ematea Hondarrezko oinarri baten gainean lauzaz, harlauzaz, harri zabalaz, uharriz edo galtzada-harri naturalez egindako zoladurak konponduko dira kaltetutako materialen ordeztu haien antzeko beste batzuk jarrita. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordeztu, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, formei, atalei, diseinuei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektua beharrezkoa den kasuetan.

e) Arotzeriari eta errementaritzari konposizio- eta forma-babesa ematea Jarduerak edo esku-hartzeak honako parametro hauek bete beharko dituzte:

1) Barandak eta egurrezko karek xumeak kontserbatuko dira, segurtasun-funtzioa betetzeko desegokiak ez badira. Halaber, egurrezko elementu bereziak (eskubanda torneatuak, taxutuak edo zizelkatuak, eta balkoietan, kareletan eta barandetan tradiziozko forjaketaz egindako errementaritzak-ianak) kontserbatu beharko dira. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordeztu, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektua beharrezkoa den kasuetan.

2) Arotzeria, baranda eta burdin hesi berrien diseinua egokituko da, materialei eta formei, tamainari eta itxurari dagokienez, antzinakoan eta/edo zubiaren adierazle hoberenen arabera.

f) Dekorazio-harrilanei konposizio- eta forma-babesa ematea Harrizko elementu apaingarriak (erlaintzak, behe-erliebeak, azpadurak, harburuak, txapelak eta abar) jatorrizko funtzio praktiko edo estetikoa betetzeko eta lehen zuten toki berean erabiliko dira zehatz-mehatz, eta ez testuingurutik ateratako dekorazio-elementu gisa.

g) Estaldurei eta akaberei konposizio- eta forma-babesa ematea:

1) Kanpoko estaldura apaingarri tradizionalak (esgrafiatuak edo juntura ebakiak) eta uharriz egindako artisau-zoruak eraikuntzaren zati bereizezinak direla ulertuko da; pertzepzio estetikoaren faktore erabakigarriak dira eta ezingo dira kendu erabat. Desmuntatu ahal izango dira soil-soilik ohiz kanpoko kasuetan, haien funtzionamendua eragozten duten usteltzeak edo kalteak sortu badira. Elementu kaltetuen ordez, ezaugarri bereko beste batzuk jarri beharko dira, formei eta testurei erreparatuta. Nolanahi ere, haien presentziaren lekuko fisikoak utziko dira, baita proiektuan zehaztutako dokumentuak ere (planoak, argazkiak eta deskribapenak), esku hartzeko proiektua beharrezkoa den kasuetan.

2) Bereziki babestu behar dira, testuingurutik atera gabe, eskuz edertutako elementu guztiak, erreproduzitu ezin diren artisau-lanak diren aldetik.

3) Hormen kanpoko estalduren testurek eta itxura kromatikoek eredu tradizionalen arabera izan beharko dute, kare-morteroz egindako juntura hondoratuak, berdinduak edo irtenak erabiltzeari dagokionez, zuriz edo harea kolorez margotuak, luzituak eta kareztatuak.

h) Instalazioei konposizio- eta forma-babesa ematea:

1) Arrapalak eta eskailerak hartzeko behar diren egiturak diseinatuko dira multzoaren irudi globalean integratuta, haren pertzepzioan aldaketarik sortu gabe, eta, begi-bistan geratuko badira, material arinak eta erabat itzulgarriak erabiliko dira.

2) Telekomunikazio- eta elektrizitate-ekipoen makinak, elementu osagarriak eta antzeko beste instalazio guztiak bildu beharko dira espazio publikotik ikusten ez diren espazio komunetan.

6.– Babes ertaina duen zubiak balio historikoa baldin badu, babes-araubide honetan ageri den 2. zerrendan adierazten denaren arabera, ulertuko da babes historikoa emateko ekintza xehatu hauek egin daitezkeela:

a) Asentuari babes historikoa ematea:

1) Indusketak eta lur-mugitzeak egiteko lizentzien eskaerek nahikoa dokumentatu beharko dute lursailaren hasierako egoera, haren profil topografikoak, lurzoru motak, eta elementu bereziak.

2) Balioespen-fitxan mugatutako ingurune babestuaren hasierako urbanizazioa eta proposamenan jaso dena grafikoki zehaztuta adierazi beharko dira arkitektura-proiektuaren planoetan, dokumentazio horren beharra duten esku-hartzeak izanez gero.

3) Kanpoko esparru babestuen bolumenak, azalerak eta kokalekuak, babes-araubide honen 2. zerrendan ageri den zubiaren planoan eta proiektuaren egungo egoeraren planoan daudenak, zabaldu ahal izango dira soilik honako helburu hauekin lotutako erabileretarako: irisgarritasuna eta zerbitzuak hobetzea, aisialdia, edo esparrua zeharkatzen duten bide historikoei buruzko ezagutza hedatzea. Halaber, ezingo dute inbaditu gainerako esparru funtzional babestuek hartzen duten eremua; erantsitako bolumenak ez ditu eragotzi behar hasierako bistak, egungo esparru publikoaren puntu guztietatik begiratuta; eta erantsitako eraikuntzak egokitu behar dira alboan edo hurbil dituzten lehengo eraikuntzen ezaugarrien arabera.

4) Babes ertaina duten ondasun higiezinak ezin dira kokalekutik bereizi. Ondasun horiek lekualdatzea ez da lehengoratzeko-ekintzat hartzen.

b) Egiturari babes historikoa ematea:

1) Egiturretan (horma-bularrak, pilak, zubi-brankak eta ezproiak, gangak eta buruak, plementeria erresistentea, tinpanoak) jardungo da soil-soilik bakoitzari dagokion sostengu-funtzioa betetzen ez duten elementu bakanak (harlanduak, harlanduxkak, harlangaitzak, dobelak eta abar) konponatzeko, kentzeko edo ordeztzeko.

2) Lehendik dagoen egituraren modulazioa eta proportzioak babestuko dira, horma-lodierak eta altuerak ere barnean hartuta.

3) Zubiaren kargak transmititzeko eta banatzeko sistemari eutsiko zaio, gainkarga puntual batzuekin behartu gabe, eta karez eta harriz egindako gangen ordez hormigoi armatuz edo altzairu elektrosoldatuz egindako egituren bidez zurrundu gabe.

4) Euste-hormen egituretan, arkuetan, gangetan eta lauzetan ez da zulorik edo horma-zulorik egingo. Euste-hormetan ez dira onartuko zementu-morteroz egindako juntura masiboak: transpirazioa bideratzen duten eta efloreszentziak eragozten dituzten kare hidrauliko natural puruz egindako masak erabiliko dira.

5) Ez da onartuko zatiak kentzea irizpide estetikoak soilik aintzat hartuta, edo multzoaren konposizioa andeatzen duten eranskinak direla iritzita. Eranskin diskordanteak direlako desmuntatu ahal izateko, berariaz jasota egon beharko dute araubide honetan ageri den zerrendan, eta hala direla joko da lehendik dauden eraikin babestuetan kalte edo aldaketak eragiten badituzte, egiturari edo eraikuntzari dagokionez.

